



IHOTE SAL TSA

Enplegu bulego berria garagarrilerako zabalduko dute, aurretiko hitzordu sistema eta guzti / 9

Energia eraginkortasuna hobetu eta faktura murrizteko lanak Etxarri Aranatzen / 11

Sakana Patin tadeko kideek Sakanan irristaketa pista beharrezkoa dela aldarrikatu dute / 19

Mari Romerok bigarren eleberria aurkeztu du Altsasun, gerra zibilean oinarritutakoa / 21

Atzapar Rock musika taldeak Segi aurrera lehenengo diskoa kaleratu du, hamabi abestiz osatuta / 23



Joan den urteko inauteriak Altsasun. ARTXIBOA

Zuekin guztiekin: inauteriak!!!

Gaurtik astearte bitartean mozorro festa batek hartuko gaitu, Irurtzundik Ziordiara. Herri-inauteriak, hiri-inauteriak eta haur-inauteriak ospatuko dira batean eta bestean. Gainera lau herrietan kinto ospakizunak daude

IRURTZUN



GUSTU GUZTIETARAKO INAUTERIAK

Gaur eskolaren ihotea eta herri-inauteria izanen dira. Bihar, berriz, hiri-inauteria ospatuko da

Inauteri egitaraua herenegun abiarazi zuen Irurtzongo musika eskolak kultur etxean emandako kontzertuarekin. Ihote-ospakizunek Irurtzunen gaur izanen dute segida. Goizean Atakondoa eskola publikoa izanen da protagonista eta, arratsaldean, herri-ihoteko segizioa izanen da. Bihar, berriz, hiri-ihotea izanen da. Kuadrillak mozorrotu egingen dira eta eguerditik aurrera irudimen desfile bihurtuko da Irurtzun.

OSTIRALA 1

10:15 Mozorroren desfilea, hamaiketako, kalejira, Marigorriren erretzea.

Atakondoa eskola publikoa.

18:00 Herri-inauteriak: Irurtzongo joaldunak eta Iskidiren mitologia-pertsonaiak. Kalejira plazatik abiatuko da.

Triki-poteoa era txistor-jana, Barazkigunen.

LARUNBATA 2

13:30 Kalejira Galtzagorriekin.

14:15 Bazkaria jubilatatu elkartearen.

14:30 Inauterietako herri-bazkaria eskolako jantokian.

17:00 Ihoteetako herri-kalejira Galtzagorri txarangarekin, eskolatik abiatuta.

17:30 Mozorrotutako pertsonen eta kuadrillen kontzentrazioa, Foru plazan. Ihote desfilea eta musika.

18:30 Herri txistor-jana, Foru plazan.

IGANDEA 3

18:00 Euria dantza antzerkia, Markeliñe konpainia, kultur etxean.

UHARTE ARAKIL

MOZORRO GARAIA

Inauteria bihar herri bazkariarekin eta mozorrotuen kalejirarekin ospatuko dute uhartearrek

Aurtengo ihote ospakizuna gosalduz hasiko dute uhartearrek. Izena eman duten animosoenek Marisolereanean hamarretakoa janen dute. Haien mahaiaren bueltan segitzen duten bitartean, 11:30ean, haurren gozo-eltzeak izanen dira. Begiak estalita ma-

kilarekin haien hausten asmatu beharko dute. Eguerdian kalejira egingen dute fanfarreak, joaldunek eta Euskal Kantak. Azken horiekin bazkal aurretik ez da kantu saiorik faltako. 15:00etan eseriko dira mahaira, alondegian. Ihote-bazkaria dastatu ondoren, 18:00etan, kalejiran herriari buelta ematera abiatuko dira. Hura bukatuta auzatea izanen da, inauterietako sua piztuko dute eta han panpina erreko dute. Herrixka galduen dantzaren ondoren parranda ordu txikietaraino luzatuko da.



www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea





ARRUAZU

MOXORROAK HELDU DIRA

Ihote arbazuarreko pertsonaiak igande arratsaldean aterako dira kalera

Inauteri arbazuarreko pertsonaiak dira moxorroak. Soineko eta arropa koloretsuak jantzen dituzte, aurpegia estalia eta buruan txanoa dute. Baita zigorra eskuan. Harekin jendea berotzen saiatuko dira, horretarako lasterraldi handiak eginez. Gaur egun haurrak dira moxorro itxura hartzen dutenak. Baina haiekin batera bestelako mozorroak ere izanen dira kalean igandean. Guztiak elkarrekin etxez etxeko puska-biltzea egingen dute eta jasotakoarekin merienda egingen dute Itur-Gain elkartean.

LAKUNTZA

IHOTEA HIRUTAN

Gaur eskola, bihar hiri-ihotea eta asteartean herri-ihotea ospatuko dira

Lakuntzako ihote ospakizunak eskolako ikasleek gaur 12:30ean egingen duten kalejirarekin hasiko dira. Hala ere, bihar izanen da inauteri lakuntzarraren egun handia. 13:00etan, bazkalurreko poteorako aterako dira mozorrotutako kuadrillak eta familiak. 14:30ean herri bazkarian elkartuko dira denak eta mahaitik jasota Elebitan-ek dantzarako doinuak jarriko ditu. Ihote parranda ordu txikiak arte luzatuko dute lakuntzarrek.

Astearte arratsaldean, 17:00ak aldera, zatamarroak kalera aterako dira. Erraz asko ezagutu daitezke arropa edo zaku zaharrak jantzita dituztelako, aurpegia estalia dutelako eta buruan lastozko txanoa. Eskutan erratza, sardea edo hurritz makila dute. Azken zigor horrekin jendea berotuko dute, horretarako plazan batetik bestera lasterraldi handiak eginez. Haiek zirikatzen errepika honakoa da: zatamarro begigorri urtien behin etorri. Haur txikiak ere mozorrotuko dira eta txokolate-jana izanen dute.

ARBIZU



IRUDIMENEZKO MOZORROETATIK TXATARRETARA

Hiri ihotea ospatuko dute bihar arbizuarrek eta asteartean herri-ihotearen txanda izanen da

Kuadrilla batzuk asko pentsatutakoarekin, beste batzuk ez hainbeste, baina makina bat lagun talde aterako dira bihar mozorrotuta eta eguerdi partean kalejira koloretsua osatuko dute herrian barna. Ihote ospakizunen barruan erabateko jantzi aldaketa izanen da asteartean: arpillera edo zakuoihalak soinean jantziko dituzte arbizuarrek; baita trapuak, ohe gaineko koltzak... Mozorrotuek zigorra eskuan dutela jendea berotzeko tentazio handia izanen dute.

LARUNBATA 2

12:00 Aate, plazan.
13:00 Kalejira.
15:00 Bazkaria, Aldabide elkartean.

IGANDEA 3

10:00 Kintoak eskean.

ASTELEHENA 4

18:00 Haurrendako filma.

ASTEARTEA 5

12:00 Pixket eskien, trikitalariekin.
16:00 Dantza-kalejira, eskien.
17:00 Haurrendako jolasak eta txokolate-jana, kintoek prestatuta.
18:30 Trikitalariak, plazan.
19:00 Txistorra-jana, plazan.
19:30 Aittun haundiya, amiñ tikiya eta txatarmorruek.
21:00 Herri afaria, Aldabide elkartean.



Guaixeren Ihoteetako Argazki Lehiaketa hemen da

Aurtengo ihoteetako argazkiak gaurtik martxoaren 20ra arte aurkeztu daitezke www.guaixe.eus web orrian. Bi sariak web orriko erabiltzaileen botoen bidez banatuko dira

Inauterietan irudimena gorpuztu egiten da, eta ezohikoak diren irudi bitxi askoak uzten dizkigu. Irudi koloretsuak, irudimen eta sormen iturri direnen irudiak, irudi xebreak... Ihoteak denetarako ematen du, berdina da haurren, herri- edo hiri-ihotea izatea. Askok zarete une berezi horiek irudietan hartzen dituzuenak. Guaixe fundazioetik argazki horiek gurekin partekatzen gondepena egiten dizuegu, azken finean, 2019ko Ihoteetako Argazki Lehiaketan parte hartzeko gonbidapena da egindakoa. Kamera, tablet, adimendun-telefono edo dena delakoarekin egindako argazkiak zuzenean www.guaixe.eus web orrian propio prestatutako atalera sar ditzakezu, klik gutxitan.

Lehiaketan aurtengo inauterian ateratako argazkiak onartuko dira soilik. Lanak gaurtik martxoaren 20ko 11:59ra arte aurkezteko aukera izanen da. Jasotzen ditugun guztiak www.guaixe.eus web orrian ikusgai izanen dira eta web guneko bisitarien botoek erabakiko dute zein diren saridunak. Botoa emateko aukera martxoaren 20ko eguerditik 27ko eguerdira izanen da. Zuek gogokoen dituzuen bi argazkien egileek Errigoraren kutxa txuri bana jasoko dute opari gisa. Animatu eta parte hartu Guaixeren Ihoteetako Argazki Lehiaketan.

Ongi pasa
iyoteetan!!!

Aurten
larunbatean!

ETXARRI ARANAZKO TABERNAK

Derry - Leku ona - Xapatero



UNANU

KONTUZ, MAMUXARROAK!

Mamuxarro txikiak eta handiak daude. Aurrenekoen txanda igandean izanen da, bigarrenena asteartean

Inauteriek batera mamuxarroak Unanura bueltatuko dira. Pertsonai unanuar horiek kamixeta eta galtzontzilo luze zuriak dituzte jantziak, paxa beltza edo gorria eta zatak. Aurpegia estaltzen dieten metalezko katolaz jantzen ditu. Soinean daramatzaten paxpalinek gaztigatzen dute mamuxarroak nondik dabiltzan. Mutuek, ordea,

ez dute halakorik eta ezin asmatu nondik dabiltza. Eta hori garrantzitsua da, zigorra eskuan dutela jendea berotzeko prest ibiltzen baitira Unanun barna.

Bai mamuxarro txikiak, bai mamuxarro handiak 17:00etatik 18:00etara ibiliko dira Unanun barna jendearen atzetik korrika. Mamuxarroak alde egin ondoren, elizako estalopean musika eta auzatea izanen dira. Igandean mamuxarroei bizia ematen dietenek afaria egingen dute. Asteartean, puska-biltzea egin eta herri-afaria egingen da Danok Bat elkartearen, 22:00etan.



ETXARRI ARANATZ

IHOTE-ALDAKETA EGUNA IRITSI DA

Zalduniyote ospakizuna igandetik larunbatera pasa da, haurren eguna zena hiri-ihotea bihurtuz. Asteartean Kixkimau Pintto pertsonaia berreskuratuko dute

Inauteri-egutegiko aurreneko hiru ostegunak pasa dira: Giza-kunde, Andrekunde eta Garikunde. Hiruetan kintoak zigorrekin egon dira kalean. Kinto eskea ere egin dute gero afaldu eta parranda egiteko. Etxarri Aranazko ihote-egutegian hurrengo data Zalduniyote da, aurten igandetik larunbatera pasa eta hiri-ihote bilakatu dena. Egitarauaren barruan mozorro lehiaketa dago, hiru sari banatuko dituen: mozorro hoberena, mozorro originalena eta euskal kulturarekin loturik dagoen mozorro hoberena.

Horrekin batera, Etxarri Aranazko ihoteak beste aldaketa bat izanen du: Kixkimau Pinttoren berragerpena. Astearteiyotean izanen da, 18:00etan. Altsa-suko Juantranposoen edo Lanzko Ziripoten moduko pertsonaia da: gorputz osoa, burua eta guzti, estaltzen zion zaku oiha-lez egindakoa zen mozorroa, eta oiha horren barnean, gorputzaren itxura ere ez nabaritzeko, belarrez puztuta zeukan; aurpegia, berriz, arnasa eta elikadura ez oztopatzeko, libre zihonan, baina errautsez edo ikatzez belzturik eta, azkenik, ttuntturroa buru gainean (kolore askotako papertxo tirez estalitako kartoizko egitura koniko luzexka). Kintoek harekin kalejira egingen dute herrian barna eta hura despeditzean, 19:00etan, plazan su emanen diote. Ttuntturroak ere jantziak izanen ditu jendeak. Antolatzaileek txatarrez edo

trapu zaharrekin jantzita joateko deia egin dute. (Gehiago azken orrian).

LARUNBATA 2

ZALDUNIYOTE. HIRI INAUTERIA
13:00 Gurdi dementiakin poteue.
17:30 Mozorro txapelketa, gazte asanbladak antolatuta.
19:00 Musikatutako poteoa.
19:30-21:30 eta 00:00-03:00 Musika plazan, kintoek jarria.

ASTEARTEA 5

ASTEARTEIYOTE. HERRI-INAUTERIA
09:30-13:00 Kintoekin kalejira, txarangarekin.
12:00 "Zeren zain", haurrendako animazioa eta dantzaldia.
13:30 Txarangaren kontzertua, plazan.
17:00-18:00 Dantzaldia Orots taldearekin.
17:30 Txokolate-jana, plazako estalopean.
18:00 Kixkimau Pinttoren segizioa kalez kale, kintoek eramana.
19:00 Kixkimau Pinttoren erretzea, plazako zelaian. Segidan auzatea.
19:00-22:00 Dantzaldia Orots taldearekin.

LIZARRAGA

MOZORROTUEN KUADRILAK KALEAN

Lizerratarrek bihar eguerditik aurrera ospatuko dute inauteria

Ihote segizioa osatuko duten mozorrotuen kuadrillek Intxorreta karrikan, Ergoienako udaletxe ondoan dute hitzordua bihar eguerdian. Handik abiatuko da ihote-segizioa, Lizarragan barnako kalejira ibiliko dena. Hura Azi Iturri elkartearen ondoan bukatuko da. Han, 14:30 aldera mozorro-bazkaria egingen da. Arratsaldean, mahaitik jaso eta etxex etxeko puska-biltzea egingen dute. Garai

batean urdaia jasotzen zuten. Gaur egun horrekin batera, txistorrak, arrautzak eta dirua. Erronda bukatzean elkartera joko dute, jasotakoa hartu eta harekin afari ederra prestatuko dute. Ihote-afariaren ondoren parrandak segituko du.

Lizarragan eskola ixtearekin batera desagertu ziren ihoteak. Orduan haurrak mozorrotu eta eskean ibiltzen ziren Lizarragan barna. Inauteriak 2013an berreskuratu zituen Azi Iturri elkarteak. Bazkidearen eguna ospatzen ez dutenez, halako zerbait ihoteetan egitea erabaki zuten eta elkartearen kontura izanen dira bazkari-ko edariak.

ITURMENDI

IHOTEEN LEHEN TXANDA HEMEN DA

Inauteri-egutegia astelehenean abiaraziko dute iturmendiarrak. 17:00etan txantxigorriak prestatzeko tailerra egingen dute. Eta, 20:00etan, pizza oinarri dituen afaria egingen dute. Asteartean, berriz, 18:30ean txokolate-jana izanen da, baita marrazki txapelketa ere. Hura despedituta, 19:30ean, kitomotxorroek herrian barna kalejira egingen dute. Ihoteko pertsonaia horiek arpillerak jantziak



dituzte soinean. Ondoren, 21:30ean, Aitzkozar elkarteak ihote-afaria hartuko du. Joan den urtera arte domekan ospatzen ziren ihoteak Iturmendi, baina larunbatera pasatzea erabaki zuten. Hala, nagusiki haur-ihotea zena hiri-ihote bilakatu zen. Azken ospakizun horrek aurten ere segida izanen du eta martxoaren 9an ospatuko da, herri-bazkari eta guzti.

BAKAIKU

KAMARRO GARAIA

Herri-ihotea bihar ospatuko dute bakaikuarrek

Bakaikuarrek bihar dute mozorro jartzeko aukera, herri ihotean. Arpillerak, farak eta beselako elementuak jantzen lehen herriko haurrak izanen dira, kamarro txikien kalejira egingen baita 12:30ean. Ihoteetan jan-edana ezin da falta eta 14:00etan herri bazkaria egingen dute Bakarrekoez elkarrekin. Mahaitatik jaiki, mozorroak jantzi eta Bakaikuko ihote segizioa

17:30ean abiatuko da kalejira, herrian barnako etxex etxeko erronda bihurtuko dena. Iluntzean indarrak berriro ondoren, Trikidantz taldearekin dantzaldia izanen da, 22:30etik aurrera.

Asteartean ere izanen da ihote ospakizunik Bakaikun. Haur eta gaztetxo bakaikuarrek mozorro bazkaria izanen dute elkarrekin. Santa Ageda koplak kantatzean jasotakoarekin prestatuko dute bazkaria. Mahaitik jaso eta herrian barnako kalejira egingen dute. Hura despeditzean guztiendako txokolate-jana izanen da.

ZIORDIA

HAURREN IHOTEA ASTEARTEAN

Otsailaren 16an herri-ihotea berreskuratuko ondoren, Ziordiko inauteri egutegiko bigarren data asteartean izanen da: haur-ihotea. Astearte-ihotean txikiak mozorrotu eta bostak aldera elkarrekin jarriko dute hitzordua. Handik kalejira koloretsua abiatuko da, musika lagun, Ziordian barna ibiliko dena. Elkartera bueltan, mozorrotuek txokolate-jana dastatzeko aukera izanen dute. Ziordiko ihote egutegia martxoaren 9an despedituko da, hiri-ihotearekin.



URDIAIN

MANTA EGUNA ETA MOMOXARRO GARAI

Arpillerazko mantak edo zakuak soinean, aurpegia estalia, ikus-teko bi zulorekin. Horrela jantzitako pertsonaiak topatuko dira larunbatean, 16:30etik aurrera Urdiaingo kaleetan. Hori bai, argi ibili beharko da jendea, ihote-pertsonaiek eskuan zigorra dutelako eta jendea berotzeko prest daudelako. Haiek zirikatuta nahi dituenak honako errepika esatea besterik ez du: Mantaguna, guna, guna, guna, zakuan kunkuna. 20:00etaraino kaleetan barna ibiliko dira.

Hurrengo egunean, domekan, momoxarro txikien txanda izanen da. 16:30 edo 17:00ak aldera aterako dira kalera, askotariko itxura hartuta. Batzuk ardi-narruak izanen dituzte soinean, besteek ohe-estalkiak, beste batzuek txano konikoa jantziko dute. Guztiek aurpegia estalia izanen dute eta farak izanen dituzte nondik dabilzan jakiteko. Jendea zigorrekin berotzen ariko dira. Haurrek edozein mozorroarekin jantziko dira. 20:00etan geldituko dira momoxarroak eta orduan ohikoa izaten da txokolatea edatea. Astearte-inauterian 18:00ak aldera aterako dira momoxarro handiak. Txikien antzera jantzita, jendea lasterraldi ederrak eginen ditu haiengandik urrun mantendu eta kakilkazorik ez jasotzeko. Bai txikiak bai handiak zirikatzeke honako errepika erabiltzen dute: momoxarro xirrikiti xarro, esportero molinero, zaia janda putza gero, arre konpañero. 20:00etan aurpegiak agerian geldituko dira afariak eginen dira.

ALTSASU



IHOTE EGUTEGIA ABIA-TZEAR DA

Isidoro Melero kaleko lanak direla eta, herri-ihoteko segizioak aurten bere ibilbidea aldatuko du: eskolatik Zelai kalera joko du handik ohiko bideari segitzeko

Altsasuko inauteriak momotxorroak baino gehiago dira, egitarauari begiratzea besterik ez dago. Herri-ihoteen aurretik haurrendako eta gazteendako eskaintza prest dago Altsasun. Astearteko ihote segizioan, bai haurren bai helduenean, maskararak, ereintza, akerra, sorginak, juantranposoak eta ezkontza izanen dira, besteak beste. Zelandi eta Foru plaza arteko ibilbidean izanen da gehiago ere: ezkontza; neguko nagiak atera eta udaberriko sua sentitzera deitzen duten Dantzarimako sorginen dantza, akelarrean bukatuko dena eta sorgin berak dantza, konjuru eta musikaren bidez ihote-pertsonaiak lozorrotik ateratzeko unea, akaberakoa.

Altsasuko ihote batzordeak, urtero moduan, inauterien transmisioa ziurtatzeko bi ekitaldi egiten

ditu. Asteartean izan zen lehena, Iortia kultur gunean inauteriei buruzko erakusketa mustutzearekin batera. Herriko ikastetxeetako ikasleek inauteriei buruz egindako marrazkiekin eta eskulaneekin osatu dute erakusketa. Eta han ihoteetako pertsonaiak banan-banan aurkeztu zituzten. Batzordekideek gauza bera egiten dute bihar Intxostiapunta gazte gunean.

Deiak

Altsasuko ihote batzordeak eta Altsasuko Udalak inauterietan berdintasunaren aldeko deia egin dute. Horregatik, etxeko eta familiako ardurak denen artean banatzeko deia egin dute. Eta, horrekin batera, gogorarazi dute ezezkoak ezetz esan nahi duela beti. Sexu-erasoen kontrako jarrera azaldu dute horrela.

Herri-inauteriari buruzko hainbat ohar ere zabaldu dituzte batzordetik: odolaren errituaren ondoren mozorroto gabe daudenak Zelanditik atera behar dute; arretaz jokatzeko eta segurtasun tarteak gordetzea gomendatzen da; Zelai, Altsania eta Bakea kalean autorik ez apartatzeko, eta herri-bazkarirako txartelak igandera arte ohiko tokitan salgai izanen dira.

Argazki lehiaketa

Altsasuko Udalak asteartean ospatuko den herri ihotea islatuko duten argazkien lehiaketa antolatuta du. Parte-hartzaileek, gehienez ere, hiru argazki aurkeztu beharko dituzte, argitaratu gabeak. Edozein teknika erabilia aurkeztu ahalgo dira argazkiak lehiaketara. Argazkien tamaina librekoa izanen da, baina bakoitza 40 x 50 cm-ko kartulina beltz baten gainean muntatuta aurkeztu beharko dira. Atzeko aldean titulu bat izan beharko da nahi eta nahi ez. Eta gutun azal itxi batean norberaren datu pertsonalak eta harremanetarako bideak jakinarazi beharko dira.

Lanak Iortia kultur gunean aurkeztu behar dira, astegunetan, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Postaz bidaltzen badira udaltxeko helbidera egin behar da: (Gartzia Ximenez, 36. 31.800. Altsasu). Lanak aurkezteko epea martxoaren 29ko 20:00etan despidituko dira. Epaimahaiak hiru sari banatuko ditu: 200, 120 eta 80 eurokoak. Egile bakar batek ere ezin izanen du sari bat baino gehiago irabazi. Saritutako argazkia udalaren esku geldituko dira eta, irabazi asmorik gabe, haiek zabaltzeko eskubidea izanen du. Argazki sarituen ahalik eta kalitate handieneko euskarri digitala jaso beharko du udalak.

Sarituko diren hiru argazkiak eta gaur egungo inauterien kartelarekin herri bozketa eginen da aurtengo abenduaren eta heldu den urteko ilbeltzaren artean. Bozketan aukeratutako irudiak iragarriko ditu 2020ko inauteriak.

OSTIRALA 1

18:00 Euskal Herriko inauteriak, Intxostiapunta gazte gunean.

LARUNBATA 2

18:00 Inauteri pertsonaien jaialdia eta txokolate jana, Intxostiapuntan.

DOMEKA 3 INAUTERI TXIKIA

17:30-19:30 Haurren maskarada, kultur gune parean. Txokolate-jana eta mozorro festa Xaiborrekin. Akaberan, momozuskoa. (Eguraldi txarrarekin, Burunda frontoian).

ASTEARTEA 5 HERRI-IHOTEA

14:30 Herri bazkaria, Burunda frontoian.
16:30 Momotxorro txikien elkarretaratzea eta txokolate-jana, Zumalakarregi plazan.
17:00 Momotxorro txikien irteera, Txorongo txarangak lagunduta.

17:30 Auzatea, Gure Etxean.
18:00 Inauteri txikiaren etorrera, Foru plazan. Ondoren, Momozuskoa.
18:30 Kalejira Foru plazatik Zelandira. Torrada dastatzea, Gure Etxea eraikinean, Altsasuko gastronomia elkartearen laguntzaz.
18:45 Odolaren errittoa eta herri inauteriko elkarretaratzea, Zelandin.
19:00-21:00 Dantzaldia Soni2 bikotearekin, Foru plazan.
19:30 Herri inauteriaren irteera Zelanditik, Txorongo txarangak, Zangitu fanfarreak, Altsasuko txistulari eta gaitariak eta Xapiru trikitixa eskolak lagunduta.
19:45 Ezkontza, San Juan plazan.
20:00 Akelarrea. Dantzarima dantza konpainiaren emanaldia, Zumalakarregi plazan.
21:00 Inauteriaren irteera, ezquila jotzea, dantzaldia eta mozorroak kentzea, Foru plazan.
22:00-00:00 Dantzaldia Soni2 bikotearekin, Foru plazan.

OLATZAGUTIA

HASTEKO, HERRI IHOTEA

Bihar aterako dira kalera herri-ihoteko segizioak pertsonaiak. Asteazkenean haurrendako inauteria izanen da eta martxoaren 9ko hiri-inauteriarekin osatuko da zikloa

Behe Nafarroako Anhaize herritik bueltan, Olatzagutiko herri-ihoteko pertsonaiak bihar kalera aterako dira atzera ere: zamar handiak, zamar txikiak, neskak, alkatea, apaiza, medikua, almiltea eta basozaina eta Mari Arroka. Horiek guztiak bihar, 18:30etik aurrera ikusteko aukera izanen da. Astearte arra-

tsaldean, berriz, haur-ihotearen egoitza bihurtuko da frontoia 17:00etan.

LARUNBATA 2 HERRI-IHOTEA

14:30 Herri bazkaria, frontoian. Postrerako: torrada lehiaketa.
18:00 Jantzeko elkarretaratzea, frontoian.
18:20 Areto futboleko pistarainoko kalejira.
18:30 Herri-ihoteko kalejira, areto futboleko pistatik.

20:00 Zortzikoa, plazan. Ondoren salda eta poteoa La Cigarra txarangarekin.

ASTEARTEA 5

17:00 Merienda eta Zeren Zain ikuskizuna, frontoian.
21:30 Sardinaren irteera gaztetxetik. Erretzea San Migel plazan. Torradak Barandi tabernan.

LARUNBATA 9 HIRI IHOTEA

12:00 Mozorro lehiaketarako

izen-ematea, areto futboleko pistan. Ondoren gurdien irteera.
14:30 Herri-bazkaria, frontoian.
17:00-19:30 Los Pasai txaranga.
19:00-23:00 Dantzaldia Raizti dj-rekin.
20:00 Mozorroren lehiaketako sariak dantzaldian banatuko dira.



UHARTE ARAKIL



AURREKO KINTADA HIRUKOIZTUZ

Joan den urtean kinto bakarrak egin zuen ospakizuna, aurten hiruk. Atzo hasi eta igandera arte iraunen du

Berez lau kinto badira ere, batek ez du ospakizunetan parte hartuko eta Uharte Arakilgo kinto ospakizunetako protagonistak hiru izanen dira: Urko Gorriti, Leire Betelu eta Inhar Astitz. Atzo 14:00ak aldera bazkaltzera elkartu ziren. Bazkaldu ondoren herritarrekin egon ondoren, trikitilariak lagun, baserrietara joan ziren eskatzera. Handik bueltan herrian poteatzen ibili ziren kintoak. Eurak non zeuden erraz asko jakin zitekeen bonbo hotsari segituz. Izan ere, kinto ospakizun guztietan aldean izanen dute perkusio

tresna. Herriko taberna batean afaltzera elkartu ziren. Eta kinto ospakizunen usainean uhartear batzuk ere afaltzera animatu ziren, giroan sartzeko trikiti doinuak lagun zituztela.

Hiru kintoek udalak utzitako eraikin batean lo egingen dute kinto ospakizunek irauten duten bitartean, mojena zen eraikinean hain zuzen ere. Gaur goizean kinto-eskea Itxesia auzoan eskatuz hasi dute, herrira iritsi ondoren bazkaltzera joanen dira. Arratsaldean kinto-eskea Zerradoa kaletik hasi eta herrirantz joko dute. Afaltzerakoan haiekin batera atzo baino jende gehiago izanen da gaur eta parranda egingen dute guztiek.

Bihar goizean hirukoteak kinto-eskea Alde Zaharrean egingen du. Ihote ospakizunak direnez, kintoek euren musika eta bonbo kolpearekin herri bazkari aurreko giroa berotuko dute. Haiek ere elkartean bazkalduko dute eta arratsaldean ihote ospakizunaz gozatuko dute. Kinto-ospakizunak despeditzeko gelditzen den gauza bakarra igandeko afaria izanen da. Hartara aurtengo kintoak, kinto zaharrak eta kinto gazteak joanen dira, hamarren bat. Ospakizunetan kintoek arropa zaharrak jantziko dituzte.

ARBIZU

HAMAIKA KINTO AURTEN

Baserritar jantzien gainetik more koloreko festetako atorra jantziko dute, lotsabaiek idatzia duena

Arbizun aurtengo kintoak dozena bat badira ere hamaiketik parte hartuko dute ospakizunetan: Ane Imaz, Macr Lima, Ander Flores, Inaxio Fernandez, Ouahiba Liachi, Borja German Ganboa, Olaia Razkin, Nerea Perez eta Mikel Murillo. Gaur afaltzera elkartuko dira. Ondoren, kinto-ospakizunak pagatzeko Argi Bidea elkartean barra zabalduko dute eta parranda izanen da. Bihar kintoek ihote ospakizunarekin bat egingen dute.

Igandean, 10:00ak aldera etxez etxe kinto-eskeari ekinen diote, trikitilariak eta pandero-joleak lagun. Herrian barnako buelta despeditu ondoren bazkaltzera joanen dira. Eta mahaitik jaso ondoren, Tolosan segituko dute parranda. Astelehenerako antzeko asmoa dute, poteoan ibili eta bazkaldu ondoren Tolosara joatea.

Astearte ihotean hainbat lan egin beharko dituzte kinto arbizuarrek. Alde bate-

tik, ihoteko protagonista diren aittun haundiya eta amiñ tikiya prestatu beharko dituzte. Bestetik, gurasoeekin batera, txokolate jana eta haur jolasak prestatu beharko dituzte. Eta Azkenik, Aldabide elkartean izanen den herri bazkaria prestatu beharko dute. Elkarteko egitekoak despeditu ondoren, kinto arbizuarrek Altsasun egingen dute parranda.



LAKUNTZA

ASTELEHEN- ETA ASTEARTE-KINTO

Aurtengo kinto segizioa 35 gaztek osatzen dute, 2001ean jaiotakoak 23 dira eta gainontzekoak kinto gazteak

Aurtengo kintoak honakoak dira: Julen Soto, Eneko Arbizu, Jon Sagarzazu, Ainhoa Cartagena, Naroa Galindo, Ander Agirre, Adur Kampo, Gorka Hernandez, Borja German Ganboa, Jon Arraiza, Xabier Gasko, Idoia Torrente, Kristina Zubillaga, Silvia Amores, Jasone Auzmendi, Amets Cerviño, Leire Sagarzazu, Xabier Alegria, Ekain Alegre, Iker Ansorena, Leire Imaz, Aimar Nikuesa eta Nerea Oiarbide.

Guztiak, baserritarrez jantzita, astelehenean 10:00ak aldera elkartuko dira eta herrian barnako kinto eskeari ekinen diote. Langintza horretan trikitilariak eta pandero-jolea izanen dituzte lagun. Gainera, kintoek eurek bonboa joz iragarriko dute non dabilzan. Zozketa bidez erabakiko dute zein kintoren etxean gosalduko duten. Indarra hartuta kinto-eskean segituko dute, bai herrian bai lantegietan. Bazkaldu eta gero, gazteek



euren parranda finantzatu ahal izateko dirua biltzen segituko dute. Gosariaren sistema bera erabiliz merienda non hartu erabakiko dute, indar berriturik eskean segitzeko eta musikaz herria alaitzeko. Afaldu ondoren kintoek Tolosarako bidea hartuko dute kinto segizioak eta izena eman duten kinto zaharrek. Kinto lakuntzarrek asteartean plan bera izanen dute, eskean ibili parrandarako dirua lortu ahal izateko. Afaldu ondoren, indarrak lagun badituzte Altsasura joanen dira ospakizunak han despeditzera.

Aurtengo kintoek euren egitekoa San Saastin festetan mustu zuten, alkate dantza dantzatzuz. Korpus egunean, atzera ere, herriaren aurrera dantzatzera aterako dira.

ETXARRI ARANATZ

KINTO OSPAKIZUNAK, EGITEKO BERRIEKIN

Zalduniyote larunbatera pasatzean, kintoek ardura batzuk bere gain hartu dituzte. Bihar plazan musika jarriko dute eta euro baten truke kantak eskatzeko aukera izanen da

Etxarri Aranazko kintoak aurten 20 dira: Irati Morentin, Maitane Araña, Iruene Ijorra, Leire Maiza, Iune Atxa, Elorri eta Aroa Goena, Joana Irastorza, Amair Dominguez, Aimar Araña, Ander Jaka, Irati Igoa, Ganix Kintana, Adrian Jaka, Amets Artieda, Axular Jaka, Igon Araña, Aimar Saez, Yuri DaSilva eta Mikel Riego.

Ihoteetako hiru ostegunetan txatarrez jantzita kalera atera eta zigorrak eskuan txikiak eta ez hain txikiak berotzen ibili dira. Gainera, hiru ostegunetan dendetan eta tabernetan jan-edanak eskatu, haiek elkarte batean prestatu, gatzetxean afaldu eta parranda egin dute.



Zalduniyote igandetik larunbatera aldatzean kintoek ere ospakizunetan parte hartuko dute. Arratsaldeko mozorro lehiaketan parte hartzeak dira. Gainera, Kixkimau Pintto erre aurretik plazan barna kalejiran eramanen dute. Hura erretzerako kintoak egindako ttuntturroak jantziko dituzte. Zalduniyoten kintoek kioskoan dantzarako musika jarriko dute, 19:00etatik 23:00etara eta 00:00etatik 03:00etara. Kanta bat eskatzen duenak euro bat pagatu beharko du, eta irabaziak kinto ospakizunerako izanen dira.

Hogeikoari kinto zaharrak elkartuko zaizkie asteleheneko afarian. Afaldu ondoren Tolosarako bidea hartuko dute. Han gaupasa egin eta asteartean, 09:30 aldera, herrian barnako kinto-eske kalejira egingen dute. Hura 13:00etan plazan despedituko dute eta han musika izanen da 14:30eraino. Kinto ospakizuna majo bazkalduz despedituko dute.

Euren kinto eginkizunak Olentzeroren etorreran lagunduz hasi zuten. Urte zahar egunean etxez etxeko eskea egin zuten, trikitilari eta pandero-joleen laguntzaz. Egun hauetakoez aparte, kintoek San Kirikon, San Adrianen eta Ama Birjina-egunean dantzakia dantzatzeko dute.



ASTEKOA

XABIER REPARAZ ESTRAMIANA

Zaborrak beti zabor

Azkenaldian susmoak baditut, ez ote garen ohitzen ari plastiko eta zaborrak non-nahi ikustera. Gogoan dut garai bat, non errepide bazterrean izozkailu edo telebistak euripean herdoiltzen zireneko. Mendian kristalezko botilak, latak eta bestelako zerrikeriak aurkitzeko aukera genuena. Garai hura gairiditutzat eman genuela pentsatzen nuen, ez zela itzuliko. Inork ez zuela bide bazterrean botako garbigune batera eramateko etxe parera bila etortzen zaizkizunean, bere aspiradora zaharra. Baina hara nola, gure garaiak batzuetan aurrera eta besteetan atzera nola egiten duten.

Zabor poltsa erdi irekiak bide bazter eta zubi azpitan, etxe tresna zaharrak bidegurutzetan, plastiko zikinak airean, edozein zuhaitz, sasi edo belarretan. Are latzagoa, garagardo latak han hemenka, hanburgesen edukiontzi kirasdunen ondoan botata. Gusanoak jaten zituen ume hark, lurrera botatzen zuen poltsa hura beharrean, orain latak botatzen ditu nonbait. Hezkuntzak huts egin ote digu bada? Modaz pasa ote

MODAZ PASA OTE DIRA INGURUA ZAINTEKO OHITURAK, GARBITASUN ETA TXUKUNTASUNA?

dira ingurua zaintzeko ohiturak, garbitasun eta txukuntasuna?

Kontzientzia arazorik gabeko biztanleak, oraina bizi eta gozatzeko jaiotako aldemenak. Nork zer egin daitekeen esan ezin digun mundu kaotikoa sortu dugu.

Eskubideak betebeharririk gabe gure direla pentsatzea ohitu gara. Erantzukizunik gabeko jendarte indibidualista eta ukiezina. Bat-batekotasunaren tirania, nork berea kontsumitu eta hor konpon. Errosteari utzi gabe, besteen beharriaz ezin gaituzte. Zaborrak beti zabor.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne).
GUAIXEek eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Ikus-entzuten ez dena, ez omen da existitzen

ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Mediterraneoan eguneroko heriotzen lekukorik ez daukagu. Aita Mari erreskaterako euskal itsasontziari lanera ateratzeko baimenik ez dio ematen Gobernu Zentralak. Open Arms-i ere ukatu zitzaion lan horretan ekiteari. Hortaz, inork ez badu ikusten han gertatzen dena, ez da existitzen. Gizaki horiek, ez dira existitzen. Ezta haien gorpuk ere. 35.000tik gora. Pertsonak ez balira bezala.

5 urte pasa dira Tarajalgo hondartzan guardia zibilak 15 lagun hil zituenetik. Auzia bitan artxibatu da, berriz ireki bada ere. Baina ez dago horren inguruko oihartzun handiegirik.

Bizitzak salbatzea debekatzearen paradoxa, zentzugabekeria, burla eta basakeria.

Ceuta eta Melillan dauden labanxka hiltzaileak, segurtasunaren argudiopean. Adin txikiko pertsonak noraezean Euskal Herriko kaleetan ere. Egoera bortitz horiek eta gehiago dakartzaten armen salmenta, gurean ere bai. Hori ere ez da ikusten ez entzuten; hortaz, badirudi negozio hiltzaile hori ere ez dela existitzen. Eta gurean daukagu.

Aurten Europarako hauteskundeak direla eta, eskuin muturraren gorakadaren aurrean denak beldur. Erne ibil gaitetzen honekin, eta ez gaitetzen erlaxatu eskuin muturrekoak ez diren agintariekin, hain

“gaiztoak” ez direlakoan. Orain batzuek argi hitz eginagatik, besteek ere berdin jokatzeko ari dira. Hala migrazio nola beste makina bat konturekin: osasungintza, pentsioak, lana, langabezia, genero indarkeria... Eta aporofobia: pobreaki gorrotoa.

Beste paradoxa: aberatsak diren lurraldeak suntsitu eta txirotu ondoren, migrazioak sortu eta bizitza salbatzera gurera hurbiltzeko ahaleginei mota guztietako traba, zailtasun, harresi eta pareta jarri. Horrek, bizitza salbatzeko grina geldituko duelakoan.

Baina guzti horretan dugun zerikustekoak ez denez ez ikusten ez entzuten, ez da existitzen.

Bada, bai, existitzen da.

OBJEKTIBOTIK

Pikota katalana

Kataluniako prozesuaren epaiketa hasi zenetik, leku askotan izan dira akusatuei elkartasuna adierazteko egin diren ekimenak. Lakuntzan ere ez dira atzean gelditu eta epaiketa hasi zen egunean horrela esnatu zen gure pikota edo pillekube, lazo, edo kasu honetan bufanda erraldoi horiz jantzia, Kataluniako herriari elkartasuna adieraziz. Eta horrela jarraituko du epaiketak iraun bitartean.



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trece Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Greba feministarako motorrak berotzen hasiko dira gaur

Irurtzundik eta Ziorditik auto-karabana bana abiatuko dira 19:00etan eta Etxarrin bat egingen dute 20:30ean

SAKANA

Sakanako mugimendu feminista auto-karabana antolatu du gaurko, M8 grebarako bideak berotzen leloa duena. Antolazailleek Sakana zeharkatuko duten bi adar edo auto-karabana prestatu dituzte, bata Irurtzundik abiatuko da eta bestea Ziorditik. Haietan parte hartu nahi dutenek 18:30ean aipatu bi herrietako plazetan agertu behar dute. Haietatik 19:00etan abiatu eta herriz herri heldu den ostiraleko greba feministarako deialdia egingen dute.

Martxoaren 8an emakumeak, bollerak eta transak greba egitera deituta daude. Beste eredu politiko, sozial eta ekonomiko baten aldeko apustu feminista agerian jarri asmoz, "kaleak berriro ere era masibo, alai eta aldarrikatzailean hartzeko" dei egin die Euskal Herriko Mugi-



Mobilizazio ugari izan ziren 2018an.

mendu Feministak emakume* feminista guztiei, "feminismo antikapitalista-antikolonialista" oinarri hartuta eta "heteroauraren kontra" egiteko. Grebaren bidez "bizitzak erdigunera" aldarrikapena zabaldu nahi dute.



Greba feminista errepikatuko da.

Emakumeari buruzko jardunaldiak gaurtik

Martxo guztia hartuko duen egitaraua prestatu dute: pintura, musika, protesta, festa...

IRURTZUN

Irurtzungo emakume taldeak 26. aldiz Emakumeari Buruzko Jardunaldiak antolatu ditu, udalaren eta Kultur Kontseiluaren laguntza. Beste behin ere irurtzundarren egutegia morez tindatuko du. Bere baitan martxoaren 8ko greba feminista hartuko du, baina baita beste hainbat ekitaldi ere. Esaterako, martxoaren 9ko afaria. Hartan izena emateko epea astelehenera artekoa da eta Pikuxarretik, Fruitis dendatik edo Zabaleta harategitik pasa beharra dago. Txarretak 20 euro balioko ditu.

Egitaraua

Martxoak 1-31

- Pintura tailerraren erakusketa Pikuxarren.

Martxoak 8, ostirala

- **12:00** Kontzentrazioa plazan, ondoren, bazkari autogestionatuta, karpan.
- **16:30** Karpan, Iruñeko manifestaziora joateko.

Martxoak 9, larunbata

- **19:30** Kantirun, Pikuxar.
- **22:00** Afarria, Lorena, festa.



Joan den urteko Lilasterketako partaideak. ARTXIBOA

Emakumezkoak ahalduzko udal programa onartua

Izen ematea zabalik dago: Gure Etxean, 948 564 823 edo 948 468 343 edo berdintasuna@altsasu.net

ALTSASU

Altsasuko Udalak gizonen eta emakumezkoen arteko berdintasunerako plana 2008tik du. Indarrean dagoena 2016ko gariaren 27an onartu zen eta 2019ra arteko aldia hartzen du. II. Jarraiera Plan horretan hainbat neurri jasotzen dira. 21. neurriak zera dio: Altsasuko emakumezkoek zuzendutako 'Emakumeen Bilgunea' programa bat onartzea, haien banakako eta ahalduzko kolektiboa sustatzeko.

Altsasuko Udaleko berdintasun teknikari Idoia Goikoetxea Gomezek azaldu digunez, "Emakume eta Berdintasun Batzordeak programa martxan jartzeko

baldintzak sortzeko hainbat ikastaro antolatu ditu aurreko urteetan". Eta zerrendatu egin ditu: autodefentsa feminista hiru ikastaro, sare sozialei buruzko ikastaro bat, emakumeen osasunari buruzko ikastaro bat, urtero antolatu ditu bi saio hizketaldi literario taldearekin... Goikoetxea argitu duenez, "batzordekideei egokia iruditu zaie orain arte noizean behingoak izan diren ekintzak Batzordeko lan iraukorreko programarekin bihurtu eta Altsasuko emakumei horrela aurkeztea". Hala, Emakumearen Bilgunea programaren aurtengo lehen urte erdira eskaintza ezagutarazi du.

Programatutako edukiak

Jendaurreko komunikazioa

- Datak: otsailak 23, larunbata, 10:00-14:00 eta 15:00-18:00; martxoak 2 larunbata, 10:00-14:00 eta martxoak 16, larunbata, 10:00-14:00 eta 15:00-18:00.

Zaindu ezazu zure burua

- Datak: martxoaren 21ean eta 28an eta apirilaren 4ean eta 11n. Bi talde, 10:00-11:30 eta 18:30-20:00.

Autodefentsa feminista

- Datak: apirilak 6, larunbata, 09:00-14:00 eta 15:00-18:00.

Erabili mugikorra hedabide moduan

- Datak: 3 orduko bi saio. Taldeak adostuko du egutegia.

Zineman sartzen gara

- Datak: (teoria): martxoaren 6an, 13an, 20an eta 27an (asteazkenak), 18:00-20:00. Foruma martxoak 14 (*El orden divino* filma) eta apirilak 3 (*La batalla de los sexos* filma), osteguna, 18:00etan.

danbolintxulo

ETXARRI ARANAZKO HAUR LUDOTEKA



aurrematrrikulazio epea
martxoaren 1etik 15era

Ale irekien eguna: martxoak 1 eta 4, 11:30-13:00

8 hilabetetik - 3 urte arte

Kurtsoa irailetik uztaiera

Ordutegia familien beharren arabera finkatua

Gurasoek modu asanblearioan kudeatua

Etxarriko Udalak lagundua, 2005ean sortua



ETXARRI ARANAZKO Udalak DANBOLINTXULO - kale nagusia, 73 - Etxarri-Aranatz - 440564414 - danbolintxulo.com

Enplegu bulego berria garagarrilerako zabalik

Altsasuko Gartzia Ximenez kaletik kamineroena zen etxeetako batera lekualdatuko da. Lekualdatzarekin batera aurretiko hitzordua ezarri, azpiegiturak hobetu eta alokairua pagatzeari utziko dio gobernauk

SAKANA

Nafar Lansareko zuzendari kudeatzaile Paz Fernandezek jakinarazi duenez, bulego batetik besterako leku aldaketa maiatza akaberan egingen da eta garagarrila hasieran bulego berria martxan izatea espero dute. “Kokapen berriak langabetuen prestakuntza, enpresendako arreta eta hautaketa prozesuak egiteko erraztasunak ematen ditu. Gainera, ordenagailuak dituen gune berri bat izanen du, enplegu tramiteak eta kudeaketak egiten duten pertsonen autonomia indartzeko balioko duena”. Bulego berria martxan jartzen denean aurretiko hitzordu sistema ezarriko dute. “Jendeak administrazio arloko kontuak telefono edo Internet bidez egiteko aukera izanen du, bulegora joan beharrik gabe. Aurretiko hitzorduarekin etortzen diren pertsonen lan merkatura sartzeko gaitasunak hobetzeko zerbitzuak eskainiko zaizkie”.

Fernandezek azaldu duenez, “Burlatakoaren ondoren, Altsasukoa izanen da eredu integrala eskainiko duen bigarren bulegoa. Enplegurako politika publiko aktibo guztiak eskainiko dira, prestakuntza eta enpresei arreta eskaintzeko baliabide gehiago”. Nafar Lansareko bu-



Enplegu arloko arduradunak, udalekoak eta lanetako gremioetako kideak atzo.

ruak argitu duenez, “tramiteak egiteko bulego kontzeptu batetik bizi guztirako lan aktibaziorako, prestakuntzarako eta orientaziorako kontzeptu batera pasako gara. Beti ere, lan-merkatuaren errealitatearen arabera, gaitasunen etengabeko egokitzapena eskatzen duena”.

Nafar Lansareko buruak adierazi duenez, bulego berrian prestakuntza eskaintza zabalagoa izanen da. “Enpresekin hitzarmenak eginez edo elkarrekin antolatutako ekimenak izan daitezke dauden prestakuntza

beharrei erantzuteko modua”. Fernandezek argitu duenez, “Sakanako Plan Estrategikoa egotea guretzako ezinbestekoa da. Pertsonen prestakuntza norantz bideratu badakigulako. Eskualdeko enpresak sektore baterantz badoaz eta, paraleloki, prestakuntza ematen ez bagaude, ez gara lana ongi egiten ari. Enpleguaz, enplegurako lanbide heziketaz aritzean, enpresen eskutik joan behar dugu. Baita aurreratu ere”. Fernandezek gogorarazi du 2013tik langabezia % 46,9 jaitsi dela, Nafarroan %

36,2 izan denean. “Horrek erakusten du enpresa planifikazioarekin eta estrategiarekin eskualdeek aurrera egiten dutela. Altsasu eraldaketa eredu da, merkatuaren joera berrietara egokitzen da”.

Eraikinaren banaketa

Beheko solairuko 183,35 metro karratueta eguneroko arreta eskainiko da. Diru-prestazioez eta subsidioez, politika pasiboez arduratzen den SEPEk 22,3 m²-ko bulegoa izanen du eta 18ko itxarongela. Nafar Lansarek 37 m²-ko bulego gunea izanen du, 18 m²-ko itxarongelarekin. Horietan bionboak jartzeko aukera izanen da. Behe solairuan, gainera, komunak, ezkaratza, erabilera anitzeko gela, gela bat, zuzendaritzaren bi bulego eta orientatzailearen bulegoa izanen

dira. Wifi gunean langabeek on-line tramiteak egiteko aukera izanen dute han jarriko dituzten ordenagailuen bidez.

Behe solairuak sarrera nagusia eta langileena ditu. Azken hori erabiliz goiko solairura igotzeko aukera izanen da bulegotik pasa gabe, esaterako, arratsalde ikastaroak badaude. Goiko solairuak 188 m² inguru ditu horrela banatuta: itxarongela, bi bilera gela, prestakuntza gela, artxiboa eta bildegia eta bi bulego. Eraikinak bigarren solairua du, baina hura libre utziko dute, etorkizunean bestelako zerbitzuak ezartzeko. Kanpoko aldean aparkatzeko espazio zabalagoa izanen da. Lanak Construcciones Maldadia SL enpresa egiten ari da. Arkitektura-proiektua Arqyme Barricarte y San Roman CPrena da.

Bulegoaren datuak

- **658.650** euro, lanen kostua.
- **20.000** euro, hornidura, telekomunikazio, altzari eta mudantza.
- **47.000** euro, egungo egoitzaren urteko alokairua.
- **838** langabe joan den urte akaberan.
- **177** ikasle 2018an antolatutako 11 ikastaroetan.
- **367** lanpostu kudeatu zituen 2018an, haietatik 133 erakunde publikoenak, eta gainontzeko 234 erakunde pribatuena.

Espazioa eta sarbidea

Foruzaingoaren ondoan dagoen eraikina baldintza txarretan dago eta hura botatzeko lanak hasi dira. Poliziarendako izanen da espazio berri hori. Haren parean heziz itxiko dute. Beraz, suhiltzaileen ondoko sarreratik ezinen da etorkizunean enplegu bulegora eta etxegabeen aterpera joan. Zerbitzu bata edo bestea erabili nahi dutenak aldameneko hipermerkatuaren aparkalekutik zabalduko den sarbideetik egin beharko dituzte sartu-irteerak.

GOIZERO 10:00-12:00
EGUN ON SAKANA

10:00 Prentsa eta eguraldia
10:15 Batetik bestia
10:20 Eguneko albisteak
10:45 Hizketan
11:20 Sarea: Aralar eta Karrape irratikoekin
11:55 Agurra

107.3 FM
beleixe

DENBORALDI BERRIA!

ZUZENEAN

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE
ENTZUTEKO
GUAIXE.EUS

ETAren atentatuen egoera prozesalaz

ETAren Sakanako hilketetako bat argituta dago eta bestea partez eta preskribatuta

SAKANA

Nafarroan heriotzak eragin dituzten ETAren atentatuen egoera prozesala txostena aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak astelehenean. Lana Ignacio Perez Maciasek egin du, Madrilgo Carlos III.a Unibertsitateko Nazioarteko Zuzenbide Publikoko Irakasle Elkartuak. Txostenean ETAk Nafarroan egindako atentatu mortalen edo Nafarroatik kanpo foru komunitatearekin loturiko pertsonen egindakoen egoera prozesala erakusten da.

Foru administratibotik azaldu dutenez, lanak batez ere Audiencia Nazionalak emandako datu ofizialak eskaintzen ditu, egia jakiteko eskubiderako edo banako edo taldeko memoria erai-kitzeko ekarpena egitearren. “Azken finean, helburu nagusia da ETAren biktimen erreparazioarako ekarpena egitea, egia-rako eskubidetik abiatuta, egiazko eta egiaztatutako hurbiltasunetik, gizartea errealtate horren inguruan kontzientziazten ere lagun dezan”.

Lanean jaso denez, ETak nafarren kontrako 49 atentatu egin zituen eta haietan 56 pertsona hil ziren. Horieta bi Sakanan: Jesus Ulaiar Liziaga, Etxarri Aranatzan, 1979ko ilbeltzaren 27an hila eta Sebastian Arroyo Gonzalez, Altsasun, 1980ko ilbeltzaren 8an. Txostenean jaso denez, Ulaiarren hilketari argitua dago: 1980an epaia eman zen eta hilketaren bi egile, konplize bat eta estaltzaile bat zigortu zituzten. Arroyorena, berriz, partez argitua dago. 1981ean eta 1985ean epaiketak izan ziren eta bi epai izan ziren: zelatatzeagatik konplize bat zigortu zuten eta nahikoa frogarik ez zelako bi prozesatutako absoluzio-epaia eman zen. Epaitegiak 1999an behin betiko largesteko autoa eman zuen eta auzia preskribatua dago. +www.guaixe.eus



Etxarriar ugari aurkezpenean.

Maizaren askatasunaren aldeko dinamika

Jon Gurutz Maiza Artola gaitz larriak eta sendaezinak dituzten 21 euskal presoetako bat da

ETXARRI ARANATZ

Hainbat etxarriarren parte-hartzearekin *Orain Jon Gurutz, gaixo dauden presoak etxera* dinamika aurkeztu zuten atzo. Azaldu zuten, “patologia larriak dituen eta adin nagusikoa den (68 urte) Jon Gurutz Maiza Artolaren askatasuna eskatzeko dinamika” eratu dute. Dinamika horrek “presoaren egoeraren berri eman eta herriko eragile eta norbanakoak dinamika honen inguruan aktibatzea ditu helburu”. Gaineratu zuten, “aldarrikapena garbia da: konponbidean urratsak emateak euskal presoen korapiloa askatzea ekarri behar du eta, bide horretan, gaixotasun sendaezinak dituzten euskal presoek etxeratzea ezinbestekoa da. 21 preso horiek kalean egon behar dute”.

Dinamikaren astearteko aurkezpenean zehaztu zuten, “Pertsona horien osasunarekin eta sufrimenduari bestelako kalkulak egitea ankerkeria besterik ez da”. Gaineratu zuten, “konponbidean, giza eskubideen errespetuan eta elkarbizitzan urratsak emateko guztiok behar dugu batera bultzatzea”. Horregatik, herritarrei dei egin diete egiten diren ekimenetan parte-hartzera.

+www.guaixe.eus



LABekoak enplegu bulego aurrean.

LABek soldata arrakalaren kontra egiten du

Ordezkariek dituen enpresetan eta enplegu bulegoan datuak eskatu ditu diagnostia egiteko

SAKANA

Sakanako LABeko ordezkariek Altsasuko enplegu bulegoan informazio eskaera egin zuten asteartean. Sakanako 15 udalerrietako gizonzkoen eta emakumezkoen inguruko informazio zehatza nahi dute: osoak ez diren kontratuen kopurua, aldi baterako kontratuen kopurua, lan sektore bakoitzean dagoen kopurua eta kontratazio sistemak. LAB ordezkatua dagoen lantokietan ere eskatu ditu datuak. Arantxa Ibargoien Lizarazuk esan zigunez, jasotako datu horiekin guztiekin “Sakanako enpresetako egoera errearen diagnostia egin nahi dugu”.

Gizonzkoek eta emakumezkoek jasotzen duten soldaten arteko aldearen kontra, soldata arrakalaren kontra, eta diskriminazio ororen aurka egiteko ekimen gisa aurkeztu zuen LABek atzokoa. “Sistemak, emakumeok ekonomikoki esplotatzeko tresna da gure kontura bi ildotan aberasteko: alde batetik, soldatapean egiten dugun lanari balioa kendu eta dagokiguna baino gutxiago ordaintzeko. Eta, bestetik, lan merkatuarendako funtsezkoa den esku lana erreproduzitzeko. Bestela esanda zaintza lanak dohainik egitera behartzeko”. +www.guaixe.eus



Bilera kalean egin zen. @BORJACOLOMINA

Komunikas Sarearen topaketa Iturmendin

Ikas Komunitate diren Nafarroako eskola publikoak elkartzen dituen sarea da Komunikas

SAKANA

Ikas komunitateak, hezkuntza eta eraldaketa soziala bilatzen duten hezkuntza jarduerak arrakastatsuetan oinarritutako proiektua da. Horretan, ikasleen ikas-kuntzan eta garapenean zuzenean edo zeharka eragiten duten pertsona guztiak hartzen ditu: irakasleak, familia, lagunak, auzokideak, auzoko eta tokiko elkar-te eta erakundeak kideak edo boluntarioak.

Eider Aldaia Iturmendiko eskolako zuzendari eta Haur Hezkuntzako tutoreak azaldu digunez, sarea hilean behin sareko ikastetxe batean elkartzen da. “Saio guztiak egitura bera izaten dute: lehenik, irakasle eta zuzendariak gure artean elkartzen gara, proiektuari nola aurre egin hitz egiteko, zailtasunei aurre egiteko bideak jorratzen ditugu, sindikatuekin hitz egin eta abar. Ondoren hamaiketako egiten dugu eta tertulia batekin bukatzen dugu”. Aldaiak azaldu duenez, “egunerokotasunean bakoitza bere irlan dago eta halako topaketek indarra ematen dizute. Askotan ditugun zailtasunak oso antzekoak dira”. Gaineratu duenez, “Ikas Komunitatearen funtsezko izaera da hezkuntza komunitate osora irekitzea”. +www.guaixe.eus

Guaixeren hemeroteca ziordiarren eskura

Hura kontsultatzeko aukera dago liburutegian ostegunera arte, 16:30etik 20:30era

ZIORDIA

Ziordiarren eskura dago astelehenaz geroztik Guaixeren hemeroteca ibiltaria. Liburutegian prestatutako standean hilabete-kariaren (1994-2003) eta Oixe astekariaren (2001-2003) ale guztiak kontsultatzeko aukera dute ziordiarrek, garai bateko herrian albiste izan zena gogoratzeko eta partekatzeo aukera izanik. Ale zaharren batean norberaren edo ingurukoren baten argazkiak topatzeko aukera dago. Hala gertatzen bada, Guaixe fundatortik argazkia egitea eta sare sozialetan argazkia #batzengaituena edota #Guaixe25 traolak erabiliz partekatzea proposatzen dizugu. Inor topatzen ez dutenek photocalla egiteko markoa ere badute standean eskura eta nahi duenak harekin argazkia egin eta partekatzeo aukera du. Gerta daiteke bakarren batek aleren bat etxerako nahi izatea ere. Hala bada, admin@guaixe.eus e-posta helbidera eskaera idaztea besterik ez du eta fundazioak aipatu alea oparitu dio. Trukean alearekin agertzen den bere argazkia sare sozialen batean partekatzea eskertuko genioke. Ziordiari Altsasuk hartuko dio lekukoa, martxoaren 11tik 29ra.

Maisuenean sartu direla salatu du gazte asanbladak

Olaztiko Gazte Asanbladak (OGA) jakinarazi duenez, Maisuenea gaztetxean sartu ziren asteartean, eta gaztetxearen kontrako “erasoa” salatu zuten. Eta gaineratu zuten, Etxarriko gaztetxean gertatu bezala, Maisueneakoak “txakur usaina” duela. Segurtasun indarrak ez dituztela ez nahi ez behar gaztigatu dute eta alde egiteko eskatu diete.



Nekazal ibilgailuen IAT azterketa egiten den tokian izanen da. ARTXIBOA

Garbigunea aurten jartzeko lehen pausoa emanda

Altsasuko Udalak Sakanako Mankomunitateari Pilotajaukun 900 m²-ko lur sail bat utziko dio

ALTSASU

Altsasuko Udalak Pilotajaukun duen biltegiaren ondoan kokatuko da etorkizunean garbigunea. Han dauden bi bide sortzen duten hiruki itxurako lur sailean kokatuko da. Altsasuko Udalak herenegun egindako bilkuran erabaki zuen partzela hori Mank-i uztea han garbigunea egiteko. Mank-ek lanak aurten egingen ditu. Inbertsioak 296.253,02 euro aurrekontua du eta Nafarroako Gobernuak laguntza emanen du.

Altsasuarrek udal biltegiara hondakinak botatzera joateko ohitura badute, han udalak industria-eragileentzako handiak horretarako jarriak baititu. Horrela, ordea, ez dira hondakinak bereizten. Hondakin horien tratamendu egokia emateko eta behar bezala bereizteko balioko du garbi gune berriak. Espazio itxia izanen da, porlanezko zo-

ruarekin, eta barruan hainbat edukiontzi izanen dira, hondakinak gaika egoki birziklatzeko.

Udalak erabaki zuen ONCERekin hitzarmena egitea, saltzaile batek Erkuden eta Altzania kaleen bidegurutzean dagoen kioskoa erabiltzeko. Bestetik, udalak DYArekin duen hitzarmena berri du, laguntza elkarteak Baka kalean erabiltzen duen udal eraikina erabiltzen segi dezan.

Herenegun bi mozio atzera bota zituen. Batetik, EH Bilduk eta Goazen Altsasuk AHTren kontra, tren sozialaren alde eta martxoaren 30ean Altsasun egingen den manifestazioari babesa emateko aurkeztutako mozioa ez zen onartu. Bilkura gelan publiko gisa zeuden pertsona batzuk egindako irainak salatu ditu alkateak. Ez zen onartu ere ez EH Bilduk Venezuelako egungo gobernu legitimoari sostengua emateko mozioa.

Argindarra aurrezteko neurriak hartuta

Hainbat kaletako argiteria publikoko faroletan LED argiak jarriko ditu eta haiek kontrolatzen dituen hiru koadro berrituko ditu eta beste bi bateratuko ditu. Lanek Nafarroako Gobernuaren % 60ko diru-laguntza dute

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Udalak energia eraginkortasuna hobetzeko bi lan eman dizkio Aldakin enpresari. Langileak astelehenean hasi ziren lanean eta apirilera bitartean Etxarri Aranatzen lanean izanen dira. Bi egiteko izanen dituzte. Alde batetik, argiteria publikoko koadroekin. Gaur egun halako sei koadro daude udaletxean, hiltegi zaharrean, kioskoan, Malkorramendin, Arluzepean eta Bureinan. Haien azterketak agerian utzi zuen udaletxeko, Arluzepeko, eta Bureinako koadroak eta euren banaketa-sistema oso zaharrituta zeudela eta berritu, hobetu, sinplifikatu eta automatizatu behar zirela. Eta hala egingen da. Bestetik, Arluzepeko eta Bureinako koadroak bateratu egingen dira, argiteriaren kudeaketa sinplifikatzeko eta eraginkorragoa izateko.

Horrekin batera, langileek faroletan dauden eraginkortasun gutxiko bonbillak LED argien-gatik ordezkatzeko dituzte. Zehazki berrituko diren koadroei lotuta dauden kaleei eman zaie lehentasuna: udaletxe ingurukoak, Arizetabide inguruko kaleak, Zugarreta eta Bureina inguruko kale guztiak, eta Andra Mari baseliza ingurukoak.



Udalaren urteroko argindar faktura 70.000 euro ingurukoa da, argiteriarako 40.000.

Lanak hegoaldetik iparraldera egingen dira. Eneka Maiz Ulaier alkateak jakinarazi duenez, “kale eta eremu batzuk argiz indartuko dira, ilun antza daudelako”. Maizek gogorarazi du, legegintzaldi honetan dagoeneko Aldapason, Kale Nagusian, Santa Kitz eta San Kiriko kaleetan neurri horiek hartu direla. “Berritu gabe geratuko diren kaleak hurrengo inbertsioetan aurrekusi beharko dira”.

Alkateak azaldu duenez, “aurrekusten da energia kontsumoan aurrezteaz aparte, argitasunean

ere asko irabaziko dela”. Maizek aurreratu duenez, “egindako inbertsioa 5 urtean berreskuratuko dela aurrekusten da, inbertsioak % 65eko energia-aurrezpena ekarriko baitu”. Alkateak gogorarazi du “argindarraren prezioak izugarri egin duela gora azken urteotan (%50), eta udala ahalegin berezia egiten ari dela aurrezpen energetikoan hobetzeko, aurreztutakoa beste behar batzuetan inbertitzeko”.

Astelehenean hasitako lanen aurrekontua 232.985 eurokoa (BEZ kanpo) da.

uneak istanteak dira...

UNE BAKOITZAK PRODUKTU BAT ESKATZEN DU ZEIN DA ZUREA?

ZUREKIN 1964 GEROZTIK

Amaya

OKINDEGIA

🍞 | 🥞

<p>OLAZTI 948 468 755 • Orreaga Kalea, 1</p>	<p>ETXARRI-ARANATZ 948 461 660 • Kale Nagusia, 4</p>	<p>ARAI 945 314 572 • Andoni Urrestarazu, 3</p>	<p>VITORIA-GASTEIZ 945 148 368 • Arriagako Atea, 12</p>
<p>ALTSASU 678 323 403 • Iruña Hiribidea, 48</p>	<p>948 468 026 • Zumalakarregi Plaza, 3</p>	<p>670 389 017 • San Juan Kalea, 50</p>	<p>948 562 185 • Otadiko Kristo Deuna, 19</p>



Aldasoro saria jasotzen. ETB

Aldasororendako ETBko Teknopolis sarietako bat

ETBko Teknopolis saioak 20 urte bete ditu eta sariak banatu zituen. Sarituen artean Elena Aldasoro Unamuno altsasuarra zegoen. Osakidetzako medikua eta ikerlaria da altsasuarra eta medikuntzan genero ikuspegia txertatzeko egin duen lanarengatik jaso zuen saria. Aitortza senarrari eta semeari eskaini zien. Altsasuko auziko zazpi presoen askatasuna eskatu zuen.



Stock azokaren hirugarrena

Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkarteko kideak balorazio ofiziala egiteko zain, Ainhoa Alvarez Diaz de Arkaiak: "aurreko edizioetan baino jende gutxiago ibili da. Egin duen eguraldi onagatik izanen dela pentsatzen dugu, jendeak beste plan batzuk egin dituela. Jende gutxiago ibiltzean, salmentak ere gutxiago dira. Hala ere, denetarik egonen da".



Larunbatean egin zen landaketa.

Sakanako bigarren Oinez Basoa Altsasun dago

2009tik Arbizon dago estreinako Oinez Basoa. Zortzigarrena Iñigo Aritza ikastolaren eskutik Altsasura iritsi da. San Pedrozelai ondoan ehun bat zuhaitz (gaztainondoak eta gereziendoak) landatu zituzten ikastolako komunitateko kideek larunbatean. Gainera, Usolarrainen gauinarendako 20 habia-kutxa jarri zituzten (aurrerago beste 10 jarriko dituzte).



Kanporaketako txapelkunak. UTZITAKOIA

Final sakandarra Nafarroako EHko Mus txapelketako lehian

Rafael Lakuntzak eta Gorka Garate etxarriarrek Mikel Razkin eta Ibai Gorriti uhartearrei irabazi zieten finala. Haiek eta beste hiru bikote Euskal Herriko finalerako sailkatu dira: Arbizonko Serafin Garmendia-Txomin Flores eta Altsasuko Jobita Moro-Saioa Erro eta Patxi Astiz-Jazinto Bengoetxea. Final handia Lizarran jokatu da martxoaren 16an



BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA SAKANAN

www.eseki.com | 948 46 11 35 | eseki@eseki.com
Aritzalko pol. ind. 21. Etxarri-Aranatz, Nafarroa, 31820

ESEKI S.A.L-k burdinoletatik datozten pieza handietako are-garriketa egiteko sistema robotizatu baten diseinua eta exekuzioan oinarritutako I + G proiektua garatu du. Proiektu hau Nafarroako espezializazio adimendunaren estrategiaren barnean kokatzen da, zehatz mehatz Nafarroako Gobernuak eta FEDER Funtsek finantzaturako sektore eolikoarendako irtenbide teknologiko berritzaile bat erabiliz.

Kabina robotikoa beso robotizatu baten bidez automatizatu da, hainbat pieza ezberdin tratatzeko aukera ematen duelarik, bere 9 ardatzen bidez zati konplikatueta erraz eta trebeziaz



ailegatzeko prestaturik baitago.

Programaziorako, ESEKIn ingeniariak sailak prozesuen denboren simulazio eta egiaztapenerako tresna batetan oinarritutako irtenbide bat aukeratu zuen,

programazio denbora optimizatu eta mugikortasun arazoak baztertuz.

Simulazio-programarekin batera, urruneko mantentze- eta prozesu-kontrol sistema bat ga-

ratu da. Horrek datuen bilketa eta prozesuaren jarraipena denbora errealean egiteko aukera ematen du, funtzionamenduaren ebaluazio sakona egitea ahalbidertuz. Sistemak mantentze prebentiborako alarmak ditu, ahalik eta akats gehienak saihesteko, prozesuaren etengabeko hobekuntza ahalbidetuz.

Kabina robotikoa benetako ekoizpen ingurune batean kokatu da, emaitza onekin. Proposamen hau ingeniariak sailarena izan da, hainbat urtez robotizazio eta automatizazio industrialaren alorrean mota honetako produktuen eta proiektuen alde egindako apostuaren ondorioa delarik.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 1

ALTSASU La (ultra)derecha que viene. Deconstruyendo a Vox hitzaldia. Hizlaria: Ricardo Feliu Martinez. Ahal dugu Altsasuk antolatuta.

18:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ALTSASU Gazte agenda. Inauteriak Euskal Herrian erronka.

18:00etan, Intxostiapuntan.

URDIAIN Gazte mugimendua eta gazte boterea.

19:00etan, gaztetxean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian.

19:00etan, Kale Nagusiko 7. an.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira.

20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.

20:00etan, udaletxe parean.

ETXARRI ARANATZ Una aventura extraña antzeulanaren emanaldia. Amuart Antzerki taldea.

22:00etan, kultur etxean.

ALTSASU La clase de piano gaurkotasunezko filmaren emanaldia.

22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 2

ALTSASU Gazte agenda. Inauterietako pertsonaien jaialdia Inauteri batzordekoak lagunduta eta txokolate jana.

18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Lizarrako Kilkarrak konpainiaren La opera de los suburbios antzeulanaren emanaldia. Tarima Beltza antzerki konpainiak antolatuta.

19:30ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU Altsasuko musika eta dantza eskolako fanfarrearen eta dantza taldearen kalejira.

17:00etan, musika eskolatik.

IGANDEA 3

IRURTZUN Markeliñe konpainiarean Euria dantza ikuskizuna.

18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Gazte agenda. Panpin

brotxeak tailerra.

18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU La clase de piano filmaren emanaldia.

19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Un dia mas con vida filmaren emanaldia.

19:40etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.

20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 4

ALTSASU Pentsio duinen alde. Nafarroako Pentsionistak Martxan eta Otsailaren 22ko Plataformak deitutako elkarretaratzea.

12:00ean, udaletxearen parean.

ASTEAZKENA 6

ALTSASU Autodefentsa feminista tailerra Saioa Arregi Olivenzaren eskutik. Emakumeen bilgunea.

09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara, Garbitoki eraikinean.

OSTEGUNA 7

ALTSASU Green book gaurkotasunezko filmaren emanaldia.

19:00etan, lortia kultur gunean.

OLAZTI Volar dokumentalaren emanaldia.

19:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Errepresaliatu gaixoak kalera, amnistia osoa. AEMren Kontzentrazioa.

19:30ean, plazan.



ZIORDIA Guaixe eta Oixe zaharren erakusketa. Guaixeren 25. urteurrena. Martxoaren 7ra arte. Astelehenetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, liburutegian.



ALTSASU Altsasuko inauterietako erakusketa. Otsailaren 25etik martxoaren 8ra.

Astelehenetik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan 16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.



ALTSASU. Adela Sanchezen eta A. Arrizabalagaren artelanen erakusketa. Otsailaren 15etik apirilaren 15era. Asteartetik ostiralera 16:00etatik 21:30era, eta asteburuetan 10:00etatik 18:00etara, Dantzaleku tabernan.

ZORION AGURRAK



Oihan
Urte askuen Oihan!
Boltio, Luis, hi eta falta dien guzietan gu artien yon artio EUTSI ETA JO TA KE! MAITE HAUGU!!
Hi launek



Gorka
Zorionak eta urte askotaako Gorka!! Segi horren jator eta alei jolasien! Musu haundi bet fameliyan partetik.



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com - www.dekovenavarra.com
Ibarrera industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikarra: 690 641 860



ESKELA



Maria Senar Senar

Egon lasai, hemen utzitako hazia goxo goxo zaintzen jarraituko dugu berriro elkartu arte!

Zure ilobak: Miren, Aitor, Aroia eta Oier
Lizarraga-Ergoiena (Ebe-txuri etxea)

OROIGARRIA




Gorka Larrea Ondarra
VII. urteurrena
Bakaikun, martxoaren 3an

Ez galdetu zer ote den dantzan jartzen gaituena inon musikarik gabe, urak bere bidea zure ilean marraztu badezake, gure begiak loreak eman arte.

Bihotzez,
Zure lagunak

OROIGARRIA



Gorka Larrea Ondarra
VII. urteurrena

"Zure falta sumatzen dugu"

Etxekoak



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK





- **Ekai Rekalde Berastegi**, otsailaren 8an Arbizun
- **Aiala Marquez Lopez**, otsailaren 12an Altsasun
- **Damian Batista Ureña**, otsailaren 18an Uharte Arakilen
- **Aislin Hannigan Goñi**, otsailaren 19an Arbizun
- **Moncef El Iorissi Dghoughi**, otsailaren 20an Altsasun
- **Adam El Filali**, otsailaren 24an Etxarri Aranatzan

HERIOTZAK

- **Maria Nieves Senar Senar**, otsailaren 22an Lizarragan
- **Isabel Mendoza Arbizu ziodiarra**, otsailaren 23an Altsasun
- **Cecilio Bengoetxea Lasa**, otsailaren 23an Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN

<p>Ostirala, 1</p>  <p>Min. 5° Max. 15°</p>	<p>Larunbata, 2</p>  <p>Min. 5° Max. 17°</p>
<p>Igandea, 3</p>  <p>Min. 6° Max. 21°</p>	<p>Astelehena, 4</p>  <p>Min. 4° Max. 15°</p>

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK
LAN ESKAINTZA
Arbizu: Estetizista autonomo baten bila nabil. Buxek ileapaindegaren barruan daukadan gela alokatuko nioke. Fernando Urkia, 1. Arbizu. Interesatuak deitu 663 540 272.

Kudeatzaile oposaketa marxan: Atabo Altsasu SL enpresa publikoaren bidez kirol azpiegiturak kudeatzeko interesa dutenek Altsasuko udalerean instantzia aurkeztu beharko dute. Lanpostuak lehen multzoko kategoria izango du, lanaldi osokoa. Informazio gehiago Altsasuko udalerean.

IKASTAROK
Cederna Garalur Elkarteak enpresa-kudeaketari buruzko bi ikastaro antolatatu ditu. "Antolatatu zure paperak ogasunarekiko betebeharrak betetzeko" martxoaren 12an, 10:00etatik 14:00etara eginen da. Eta "Ziurtagiri digitalak eta ogasunarekiko izapideak" martxoaren 20an, asteazkenean, 10:00etatik 12:30era izanen da. Informaziorako edota izena emateko: 619 328 264 telefonoa edo sakana. admon@cederna.es e-posta helbidea.

LEHIAKETAK
GAZTEWOOD Altsasuko gaztetxearen III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a

baino lehen. Informazio gehiagorako gazteewood@gmail.com edo sare sozialetan gazteewood profilean.

OHARRAK
Bakaikuko inauteriak: martxoaren 2an kamarroen bazkaria joateko, izena eman elkarteko zerrendan edo 603774852 whatsapp zenbakira idatziz. Makarroiak edo babarrunak, aukera jakinarazi.

Kanpo desfibriladore automatizatua: DYAK martxoaren 16an, 9:00etatik 15:00etara ikastaroa emanen du Altsasun. Informazioa jaso edo izena emateko: formacion@dyanavarra.com

Altsasuko Udaleko Emakumeen bilgunea zerbitzuaren ikastaroak: Jendaurreko komunikazioa (martxoak 2 eta 16, 10:00-14:00), Erabili mobilak hedabide moduan (taldeak adostuko du egutegia), Zaindu ezazu zeure burua (martxoak 21, 28, apirilak 4, 11 10:00-11:30 edo 18:30-20:00), Autodefentsa feminista (apirilak 6, 9:00-14:00 / 15:00-18:00. Zinean sartzeko gara(ikastaro hau gizonentzat ere zabalik: martxoak 6, 13, 20 eta 27 18:00-20:00). Ikastaro bakoitzak 12,50 euro. Izen ematea: 948 564 823/ 948 468 343 tfnoetan, Gure-etxean edo berdintasuna@altsasu.net emaillean.

Adona Odol-emateak Lakuntzan: Martxoaren 5ean, 17:00-20:30. www.adona.es/eu

Adona Odol-emateak Lakuntzan: Martxoaren 5ean, 17:00-20:30. www.adona.es/eu

Irurtzun Emakumearen jardunaldiak: afaria eta festa egingo da Eskolako jantokian, martxoaren 9an 22:00tan. Izen ematea martxoaren 4a baino lehen Pikuxarren, Fruitis dendan edo Zabaleta harategian. Prezioa 20 euro.

Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketa hura onartzen dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. 600 482 024 telefonoan edo AEKren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia.

Crowdfunding Kanpaina: Aritz Ganboa de Migel artzain-gaztagile arbuazurraren errokan parte hartzea gonbidatuta zaude. Arruazutik izabara mendi lasterketa eta gazta trukaketa Bideak dokumentalean jasotzeko kanpaina laguntzeko diru biltzea egiten ari dira. Informazioa <http://www.bideakdokumentalea.es/eu/crowdfunding-kanpaina> web-gunean.

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilera.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

www.iragarkilaburak.eus

IRACHE tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

948 19 70 70
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es



Martija, Altuna, Irribarria eta Zabaleta, hasierako ligaxkako material aukeraketan. Argazkia hurrengo astean errepikatuko da. ASPE

Joseba Ezkurdiaren oparia Julen Martijari

PILOTA Altuna eta Martija Binakako finalerdietarako sailkatu ziren, Ezkurdiak eta Galarzak Artolari eta Mariezkurrenari 22 eta 21 irabazi eta gero. Binakako lehen finalerdian, martxoaren 10ean, Altuna-Martija Irribarria-Zabaletaren kontra ariko dira

Aurreko asteburuko Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxkako azken jardunaldiak erabaki zuen Altuna-Martija edo Artola-Mariezkurrenari, zein biko sailkatuko zen finalerdietarako. Aurretik Elezkano II.a-Rezustak, Irribarria-Zabaletak eta Victor-Albisuk zuten finalerdietarako txartela.

Ezkurdiaren eta Galarzaren oparia

Labriten, Artolaren eta Mariezkurrenaren kontra aritu ziren Joseba Ezkurdiak eta Ladis Galarza. Baikokoak ez ziren ongi hasi, oso urduri ibili zen Artola. Aldiz, partida oso ona egin zuten Ezkurdiak eta Galarzak, eta 16 eta 11 aurreratu ziren. Baina

partidari tamaina hartzea, berdintzea eta 18 eta 19 aurreratzea lortu zuten Artolak eta Mariezkurrenari. Emozioa gora-gora zegoen, Labriteko partida bukatu baino lehen Ataungoa despeditu zelako, eta Irribarriak eta Zabaletak Victorri eta Albisuri 22 eta 18 irabazi zieten jakina baitzen. Hortaz, finalerdietako

txartela esku-eskura zuten Artolak eta Mariezkurrenari; partida irabaziz gero lortuko zuten. Baina Ezkurdiak eta Galarzak euren taldekide Altuna eta Martija laguntzea zuten buruan, eta zuten guztia eman zuten. Lehia estuan, 21 eta 19 aurreratu ziren Ezkurdiak eta Galarza, baina 21era berdindu zuten Artolak eta Mariezkurrenari. Guztia, beraz, azken tantoak erabaki zuten: Joseba Ezkurdiak egin zuten tanto hori, pilota bikain irekita. Horrela, 22 eta 21 irabazi zuten Ezkurdiak eta Galarzak eta Binakako finalerdietarako sailkatzeko txartela oparitu zieten euren taldekide Altunari eta Martijari.

Txapelketa gaizki hasi zuten Ezkurdiak eta Galarzak, baina behetik gora egin dute, ikusgarri aritu ziren azken partidatan eta 7 punturekin despeditu dute Binakako hasierako ligaxka, Artola-Mariezkurrenarekin berdinduta eta euren taldekide Altunari eta Martijari finalerdietarako pasea oparitu.

Binakako finalerdietarako sailkatuta zeudela jokatu zuten igandean Altunak eta Martijak Donostian, Bengoetxea VI.aren eta Imazen kontra. 22 eta 18 irabazi zuten Aspekoek.

Binakako finalerdietarako hasierako ligaxkan, Elezkano II.a-Rezustak 10 puntu lortu dituzte, Irribarria-Zabaletak 9 puntu, Victor-Albisuk eta Altuna III.a-Martijak 8 puntu, Arto-

la-Mariezkurrenari eta Ezkurdiak Galarzak 7 puntu, Bengoetxea VI.a-Imazek 4 puntu eta Urruti-Aretxabaletak 3 puntu.

Finalerdiak

Binakako Txapelketak atsedena hartuko du aste batez. Binakako finalerdiak 3 jardunaldira jokatuko dira.

Lehen jardunaldian, martxoaren 9an, Iruñeko Labriten, Elezkano II.a eta Rezusta Victorren eta Albisuren kontra ariko dira. Hurrengo egunean, martxoaren 10ean, Eibarko Astelenan Altuna III.ak eta Martijak Irribarria eta Zabaleta izango dituzte aurkari.

Bigarren jardunaldia Iruñean eta Bilbon jokatuko da. Martxoaren 16an, Labriten, lehen jardunaldiko galtzaileek jokatuko dute, eta martxoaren 17an, Bizkaian, lehen jardunaldiko irabazleak ariko dira elkarren kontra.

Azken jardunaldia martxoaren 23an eta 24an jokatuko da Iruñean eta Donostian. Bigarren jardunaldia despeditu eta gero zehaztuko dute partidaren ordena. Final handia apirilaren 7an jokatuko da, Bilboko Bizkaia pilotalekuan.

FINALERDIEN LEHEN JARDUNALDIAN MARTIJA ETA ZABALETA ELKARREN KONTRA ARIKO DIRA

PILOTA Gorriti eta Zubiria Malerrekako txapeldunordeak

Larunbatean Malerrekako Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren. Zazpi final jokatu ziren guztira: benjaminena, kimuena, haurrena, kadeteena, jubenilena, 2. mailako seniorrena eta elite mailako seniorrena.

Eliteko seniorren final handian, Iker Salaberria goizuetarrak (Erreka) eta Gorka Otaduyk (Olaburu) 22 eta 9 irabazi zieten Zubiriari (Zazpitarri) eta Jon Gorriti uhartearrari (Erreka), partida borrokatuan. Bigarren urtez jarraian irabazi du Malerrekako Txapelketa Iker Salaberriak, aurreko urtean Mariezkurrenarekin. Hortaz, Malerrekako txapeldunordea dugu Jon Gorriti uhartearra.

Irurtzunek Oberena izango du aurkari EHko klubaren finalean

PILOTA Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketako finala martxoaren 10ean jokatuko da Tolosako Beotibarren

Asteburuan jokatu ziren Euskal Herriko Kluben Arteko V. Txapelketa Nazionalen finalerdiak, Tolosan. Aurreko urteko edizioko txapeldunordeak, Irurtzunek, Ultzamako Buruzgain izan zuten aurkari. Nafarroako bi klub erreferente elkarren kontra aritu ziren, eta ikusmina handia zen.

Lau t'erdiko partidaren Olazabalek (Irurtzun) eta Iriartek (Buruzgain) lehia estua izan zuten, baina azkenean Irurtzun klubeko pilotaria alde ateratzen hasi zen eta 13 eta 18 irabazi

zuten Olazabalek. Lehen puntua Irurtzun klubarendako.

Ondoren buruz buru jokatu zuten Astizek (Buruzgain) eta Alberto Ongayk (Irurtzun). Ongay satrustegierra bikain aritu zen eta 8 tantotan utzi zuen Astiz. Horrela, bigarren puntua eta finalerdiarako sailkatzea lortu zuen Irurtzunek.

Baina sakandarrak ez ziren horrekin konformatu eta hirugarren partida, binakakoa, irabaztera atera ziren ere. Olo eta Iosu Bergera arruazuarra (Irurtzun) nagusi izan ziren 22 eta 6



Irurtzun taldeko pilotariak, Buruzgainen kontrako finalerdiei ekiteko prest. PILOTA BIZI

gailendu zitzaizkien Larunberri eta Gaskueri (Buruzgain). Horrela, hiru punturekin Euskal Herriko Kluben Arteko V. Txapelketa Nazionalen finalerako sailkatu da Irurtzun, aurreko urtean bezala.

Beste finalerdian, Oberena talde nafarrak Hernani taldea hartu zuen mendean. Hortaz, Irurtzunek Oberena klubaren kontra jokatuko du final handia, martxoaren 10ean, Tolosako Beotibar pilotalekuan.

SAKANAKO TOPAKETAK

PARTIDUAK

IGANDEAN KIMUEN 12. JARDUNALDIA

LAKUNTZAN

11:30 Etxarri Aranatz 1 - Etxarri Aranatz A
12:30 Lagun Arteak 07 - Tipi Tapa

URDIAINEN

12:00 Urdiain - Lagun Arteak 08

Sakanako Futbol Topaketak: igandean kimuak Lakuntzan eta Urdiainen

Igandean Sakanako Futbol Topaketetan kimuen mailako 12. jardunaldiko partidak jokatuko dira Lakuntzan eta Urdiainen. Benjaminek, bestalde, martxoaren 10era arte atsedena hartuko dute.

Sakanako Futbol Topaketak Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu, Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, eta txikienei txapelketa batean parte-hartzea ahalbiderratu nahi zaie, baina ez da txapelketa lehiakorra eta, horregatik, ez da sailkapenik egiten. Sakanako beste herrietako neska-mutikoei futboleko arituz ongi pasatzea da asmoa, euren arteko harremana sustatzea.

EMAKUM. ERREGIONALA

22. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Izarra **0-3**

20. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Burlades - Altsasu **6-1**

SAILKAPENA

EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA

1 Osasuna Fundazioa **58**12 Altsasu **19**

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

18:15 Univ. Navarra - Altsasu
(OPUSeko Unibertsitatea)**Altsasu, punturik bildu ezin**

Emakumezkoen erregional mailako Altsasuk bi partida jokatuta aste honetan. Aurreko ostiralean, 22. jardunaldian, Izarra taldea hartu zuen Dantzalekun. Partida lehiatua izan zen, baina puntuak Izarrara joan ziren. Eta atzo 20. jardunaldiko atzeratutako partida jokatuta zuten Burladesek eta Altsasuk Erripaginan. Burlades gailendu zen, nagusitasun osoz.



Erregionala: Lagun Arteak eta Altsasu igoera fasera

FUTBOLA Erregional mailako liga erregularreko azken jardunaldia jokatu zen aurreko asteburuan. Lehen multzoan Lakuntzako Lagun Arteak irabazi du liga eta Altsasu laugarrena sailkatu da. Bi taldeak aurki hasiko den igoera faserako sailkatu dira

Erregional mailako liga asteburuan despeditu zen eta gure bi taldeak bikain ibili ziren.

Batetik, Lagun Arteak liderrak 1 eta 3 irabazi zion Berriozarri. Berriozar izan zen markagailuan aurreratu zena, baina bigarren zatian agintea hartu zuen liderrak eta Lagun Arteako Iñakik, Anderrek eta Davidek sartutako golei esker hiru puntuak Lakuntzara ekarri zituen Lagun Arteak, lidergoa sendotuz.

Bestalde, Lekunberrin jokatu zuen Altsasuk, Beti Kozkor taldearen kontra. Partida garrantzitsua zen, lehen laugarren postuetan sailkatzea baitzuen jokoan Altsasuk, igoera fasera sailkatu ahal izateko. Partida oso lehiatua, Beti Kozkor taldeari 0 eta 2 irabazi zion Altsasuk Montoyak eta Imanolek egindako golek. Beti Kozkor saiatu zen, baina ezin izan zuen Altsasuk atea gainditu.

Horretaz gain, Altsasuk elurrarengatik atzeratutako parti-



Altsasu futbol taldekoak, igoera fasera sailkatu izana ospatzen. S.D. ALSASUA

da jokatu zuen Lagunak taldearen kontra eta 3 eta 2 irabazi zuten altsasuarrek, Raulek, Mikel Arellanok eta Imanol Lobbok sartutako golei esker.

Lagun Arteak liderrak 57 punturekin despeditu du Erregio-

naleko liga eta Altsasu laugarrena sailkatu da (.41 puntu). Beraz, Lagun Arteak eta Altsasu preferente mailara igotzeko faserako sailkatu dira eta ibilbide berriari ekingo diote hurrengo jardunalditik aurrera.

Jubenilak: Lagun eta Altsasu igoerara

Asteburuan despeditu zen Jubenilen 2. mailako 3. multzoko liga erregularra. Lagun Arteak liderrak 6 eta 0 hartu zuen mendean Amaya, Berriozarri 2 eta 5 irabazi zion Altsasuk eta Etxarri Aranatz 5 eta 0 gailendu zen Universidad de Navarraren aurrean.

Jubenilen 2. mailako liga erregularrean Lagun Arteak gailendu da (57 puntu), bigarrena Altsasu izan da, puntu berberekin, eta hirugarrena Etxarri Aranatz (49 puntu). Beraz, podium sakandar peto-petoa. Liga lehen bi postuetan bukatu duten taldeak, Lagun Arteak eta Altsasuk, jubenilen lehen mailara igotzeko igoera faserako sailkatu dira.



Lakuntzako Lagun Arteak irabazi du liga. LAGUN ARTEA

FUTBOL PREFERENTEA

21. JARDUNALDIKO EMAITZA

Castillo Tiebas - Etxarri Aranatz **1-0**

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Lagunak **43**13 Etxarri Aranatz **25**

IMQ KOPAKO PARTIDA

LARUNBATEAN

16:30 Etxarri- Agoitz (San Donato)

Etxarri Aranatzek eta Castillo de Tiebasek ligako partida erabakigarria jokatu zuten asteburuan; lehia zuzena zen, sailkapeneko postua baitzuten jokoan. Hasieran Etxarriko arriskua sortu zuen, baina bigarren zatian dominatzen hasi ziren Tiebasekoak eta gol aukerak sortzen hasi ziren, baina Etxarriko Ivan atezainak geldialdi bikainak egin zituen. Partida husnako berdinketarekin despedituko zela zirudienean, azken jokaldian Tiebasek gola sartzea lortu zuen eta hiru puntuak eskuan, jaitziera postuetatik atera ziren Tiebasekoak. Etxarri Aranatz, aldiz, punturik gabe itzuli zen. Asteburu honetan ez da Preferente mailako Ligako partidarik jokatuko, IMQ Kopako final zortzirenen lehen jardunaldia egongo delako jokoan. Etxarri Aranatzek Aoz taldearen kontra jokatuko du larunbatean, 16:30ean, Etxarriko San Donato futbol zelaietan.



ELOMENDI TXAPELKETA

17. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Apolo - Zaldua **0-8**

SAILKAPENA

ELOMENDI TXAPELKETA

1 Zaldua **35**2 Bidezarra **33**

HURRENGO JARDUNALDIA

OTSAILAREN 16AN

Zehaztu gabe Zaldua - Barasoain
(Lekunberri)**Zalduaren garaipen potoloa**

Elomendi Txapelketan, Zalduak 0 eta 8 irabazi zion Apolori eta Arakilgo taldeak lider jarraitzen du.

Osasuna Magna Xotak Espainiako Kopa nahi du

ARETO FUTBOLA Espainiako Areto Futboleko Kopa jokatzeko ari da Valentzian. Gaur, ostiralean, final laurdenetako bat jokatu du Osasuna Magnak Peñiscolaren kontra, 19:00etan. Kopan talde berdearen 14. parte-hartzea izango da aurtengoa

Atzo, ostegunean hasi eta igandera arte luzatuko da, Valentzian, Espainiako Kopa. Gaur, ostiralean sartuko da lehia Osasuna Magna Xota, Kopako final laurdenetan, Peñiscola Rehabmedic taldearen kontra, 19:00etan.

Talde nafarra atzo abiatu zen Valentziara. Imanol Arregiren mutilek bere zaleen babesa izanen dute, Xota klubak zituen 200 sarrerak saldu baititu eta beste zale asko bere kabuz gerturatu baitira Valentziara. Javi Esevenri kapitaina erretiratu zenetik, Roberto Martil irurtzundarra da bere ordekoa kapitain lanetan eta Esevenri ez dagoenetik bera da ere Kopan



Talde nagusiko jokalariek eta haurren mailakoek argazkia atera zuten atzo. XOTA

parte-hartze gehien izan duen jokalaria berdea, 32 urte dituen jokalaria irurtzundarra 9 aldiz aritu baita.

Irurtzundarren partidaren ondoren, gaur, 21:15ean, Barça Lassa eta Jaen Paraiso Interior taldeen arteko lehia egonen da jokoan. Atzo, ostegunean, hasi zen Espainiako Kopa, beste final laurdenekin. Movistar Inter Palma Futsalen kontra arituz, eta El Pozo Murcia Levantaren kontra, baina Guaixeko erredakzioa ixtarakoan ez genuen emaitzaren berririk.

Espainiako Kopako finalerdiak bihar, larunbatean jokatu dira 17:00etan eta 19:15ean, eta Kopako final handia igandean, 17:00etan.

Telebistan zuzenean

Espainiako Kopako partida guztiak zuzenean ikusteko aukera izango da Teledeporte eta LaLigaSportstv kateen bidez.

Minikopa

Lehen mailako taldeek jokatzeko Espainiako Koparekin batera, haurren mailako Minikopa jokatzeko da. Bertan, Kopan

parte hartzen duten taldeetako haurren mailako taldeek lehiatzen dute. Minikopako final laurdenetan haurren mailako Xotak Peñiscola taldea izango du aurkari.

Haurren mailako Xota taldeko entrenatzailea Juan Manuel Beloki da, eta honakoak jokalariek: Dimas Yoldi Ripa, Nasim Dafoufi, Oier Martiarena, Hugo Martiarena, Mikel Arregi, Jon Razkin, Oier Agirre, Mikel Beloki, Ander Garmendia, David Iglesias, Xabier Larunbe, Ekaitz Eskamendi, Asier Erburu, Eder Arago eta Ibon Nagore. Jose Mari Iglesias da taldeko delegatua.

Osasuna Magna ligan hirugarrena

Aurreko astean Lehen Mailako ligako partida izan zuen Osasuna Magnak Antequeraren kontra. 3 eta 1 irabazi zuten berdeek. Barça Lassak jarraitzen du lider (52 puntu) eta Osasuna Magna hirugarrena da (47 puntu). Bestalde Osasuna Magnak beste bi denboraldiz luzatu dio kontratua Araçari. "Nire bihotzeko klubean jarraitzeagatik hunkituta nago" azaldu zuen atzelariak.

Eraberritzeko asmoa duten zazpi landa-denda behar ditugu

Garapen Ekonomikorako Departamentuak, CEIN sozietate publikoarekin batera, **laguntza, aholkularitza eta prestakuntza plan** bat sortu du landa-ingurunean merkataritza-jarduera hobetu eta eguneratu nahi duten dendarientzat. Animatu, eta aurkeztu orain eskabidea!

nori zuzendua: 2.500 biztanletik beherako herrietako denda txikiei

negozio-mota: Elikagai-dendek izango dute lehentasuna

eskabideak: Martxoaren 15ra arte (hau barne)



IZENA EMATEKO

cein / 848 426 000 / comercio.navarra.es

Nafarroako
Gobernua  Gobierno
de Navarra

Sakandarrak txukun Oibarko eta Aiako lasterketetan

MENDI LASTERKETAK

Oibarko Trailean eta Aiako VIII. Mendi Lasterketan aritu dira sakandarrak

Asteburuan makina bat mendi lasterketa jokatu dira. Tartean, Oibarko Herria maratoi erdia (21 km) eta Oibarko Herria Trail Motza (13 km) jokatu ziren igandean. Ibilbide politan, erreka bat gainditu behar izan zuten korrikalariek.

Oibarko maratoi erdian Xabier Zarranz (1:38:02) eta Ana Reina (2:17:25) gailendu ziren, eta David Mutiloa irurtzundarra 25.a sartu zen (2:02:16). Aibar Trail motzean, aldiz, Ander de Luis (1:00:06) eta Irene Artazkoz (1:20:23) izan ziren azkarrenak, eta aipatzekoa da Joseba Galarza iturmendierra 21.a izan zela helmugan (1:11:37).

Bestalde, Gipuzkoan ia 300 korrikalarik hartu zuten Aiako VIII. Mendi Lasterketan (14,6 km). Oier Ariznabarreta (1:04:35) eta Natalia Gomez (1:14:18) gailendu ziren proban, eta Carlos Mañeru etxarriarra 59.a sailkatu zen (1:25:07).

Sakandarren denborak

Oibarko maratoi erdia (21 km)

1.Xabier Zarranz 1:38:02
25.David Mutiloa 2:02:16
118.F.J. Juango 2:40:56

Oibarko Trail Motza (13 km)

1.Ander de Luis 1:00:06
21.Joseba Galarza 1:11:37
154.Aitor Etxaniz 1:48:44
163.Iñaki Arkauz 1:50:36
164.Uxue Lazkano 1:50:36

Aiako Lasterketa (14,6 km)

1.O. Ariznabarreta 1:04:35
59.Carlos Mañeru 1:25:07
159.Iker Flores 1:37:13

BUTS: Joxeja Maiza 37.a Bilbo eta Gasteiz lotzen

MENDI LASTERKETAK Basque Ultra Trail Serieseko lehen proba jokatu zen asteburuan, Bilbo eta Gasteiz artekoa (108 km). 154 korrikalarik gurutzatu zuten Gasteizko helmuga eta Joxeja Maiza etxarriarra 37.a iritsi zen, 16 ordu eta erdi eta gero

II. Basque Ultra Trail Series (BUTS) abian da. Hego Euskal Herriko lau hiriburuak mendirik mendi batzen dituen mendi erronka da BUTS. Guztira lau etapa dira, hiriburuz-hiriburu egiten direnak.

Lehendabiziko etapa aurreko asteburuan jokatu zen, Bilbon hasi eta Gasteizen despiditu zena (108 km, 6.000 m desnibel +). Ostiralean, gaueko 12:00etan abiatu ziren 200 korrikalari inguru Bilbotik. Ganekogorta, Gorbeia, San Migel eta Zaldiaran mendiak gaindituta, 154 iritsi ziren helmugara.

Orain arte ia korrikalari eza-guna zen Angel Jabegak sorpresa eman zuen eta bera izan zen azkarrena (12:53:08). 20 minutu luze atera zizkion Arkaitz Galindezi (13:13:02). Emakumezkoetan Silvia Trigueros txapel-duna izan zen, merezimendu osoz (15:10:41). 35 minutu atera zizkion Alyssa Godeskyri (15:45:49).



Joxeja Maiza etxarriarra, Gasteizko helmugara iritsi eta gero. FESTAK.COM

Sakandarrei dagokienez, Joxeja Maiza etxarriarra 37.a iritsi zen Gasteizera, irabazlearengatik hiru ordu t'erdira (16:29:03). Jose Martin Orellana 88.a iritsi zen (20:03:20) eta Javier Ignacio Gonzalez 98.a (21:09:16).

BUTS zirkuituko 2. proba maiztzeke lehen asteburuan jokatu da, Gasteiztik Iruñera (130 km). Arabatik Urbasara sartuko da eta Lizarragatik, Beriaindik (1.493 m) eta EHko erdigunetik pasako da.



Aurreko urteko edizioa. TRIKU TRAIL

MENDI LASTERKETAK Triku Trailean izena ematea igandean zabalduko da

Etxarri Aranazko kanpinean ekainaren 30ean, goizeko 9:30ean jokatu da Triku Trail mendi lasterketa (21 km, 1.400 m. Desnibel +). Antolakuntzatik adierazi dutenez, igande honetan, martxoak 3, 13:30etik aurrera zabalduko dute izena ematea, www.kronoak.com web gunean. Korrikalari federatuek 22 euro eta federatu gabekoei 24 euro ordaindu beharko dute izena emateagatik.

Aurten bi txapelketetarako puntuatuko du Etxarriko probak. Batetik, Euskal Mendi Federazioko Mendi Lasterketen Rankingarako puntuagarria izango da eta, bestetik, Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako baliagarria izango da.

Lizarrako Duatloia: Garcia de Eulate zazpigarrena helmugan

DUATLOIA III. Lizarrako Duatloian Garcia de Eulatek, Astizek, Imazek eta Perezek maila bikaina eman zuten

Larunbatean III. Lizarrako duatloia jokatu zen. 150 duatleta baino gehiagok hartu zuten parte proba nagusian (5 km korrika, 19 km bizikletan eta 2,5 km korrika). Proba oso estuan, Beñat Arnaiz gailendu zen (55:06), Deporrama taldeko Ruben Andresi 6 segundo aterata. Duatleta sakandarrak ongi aritu ziren. Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate altsasuarra 7.a sailkatu zen (56:01) eta Hiruki Valle de Egües taldeko Mikel Astiz 13.a (56:54). Aipatzekoa ere bada Sakana Triatloi Taldeko

Francisco Javier Gomez altsasuarra 23.a iritsi zela helmugara (59:51) eta beteranoen 2 mailako lehena izan zela.

Nahia Imaz 2. kadetea

Emakumezkoetan Miren Apraizek eta San Juan taldeko Maialen Eliak lehia polita izan zuten eta Apraiz gailendu zen (1:08:09), Eliari 41 segundo aterata (1:08:50). Sakana Triatloi taldeko Nahia Imaz 7.a sartu zen (1:15:45), kadeteen mailan bigarrena, eta bere taldekide Silvia Perez 8.a (1:17:29).



Sergio Garcia de Eulate, Valtieran.

Sakandarrak Lizarran

Gizonak

1.Beñat Arnaiz 55:06
7.Sergio G. Eulate 56:01
13.Mikel Astiz 56:54
23.Fco. Javier Gomez 59:51

28.Juan Carlos Gomez 1:00:07

33.Ivan Sobredo 1:00:13
52.Isidro Asurabarrena 1:02:50

56.Juan Larrea 1:03:14
88.Gorka Chamorro 1:08:43

Emakumeak

1.Miren Apraiz 1:08:09
7.Nahia Imaz 1:15:45
8.Silvia Perez 1:17:29



Sakana Patin taldeko irristalariak 2019ko talde aurkezpena egiteko baliatu zuten Olaztiko irristaketa jardunaldia. SAKANA PATIN

Irristaketa eta aldarrikapena Olaztin

IRRISTAKETA Nafarroako Abiadura Irristaketa Indoor Txapelketako III. Jardunaldia jokatu zen. Sakana Patin taldeak 2019 denboraldia aurkeztu zuen eta Sakanan irristaketarako pista arautua sortzeko aldarrikapena egin zuten bildutako guztiek

Larunbatean Nafarroako Irristaketa Indoor Txapelketako III. Jardunaldia hartu zuen Olaztiko Erburua kiroldegiak, Nafar Kirol Jolasetarako eta Nafarroako Txikien Ligako baliagarria. Sakana Patin taldeak antolakuntza lan bikaina egin zuen eta harrera bikaina egin zien Nafarroa osotik etorritako klubetara eta baita Burgosetik gertu-

ratu zen irristaketa talde bati. Horrela, irristaketa festa ederra izan zen Olaztikoa, festa ikusgarria, Erburuan bildu ziren zaleek gozatu ederra hartu baitzuten.

Sakana Patin taldearen aurkezpena

Ekitaldia 2019ko Sakana Patin taldea aurkezteko probestu zuen

talde sakandarrak. Oskar Zamarron monitorearen esanetara, aurtun 40 neska-mutil inguru daude federatuta Sakana Patin taldean, hainbat proba eta txapelketetan lehiatzen. Talde argazkia egin zuten guztiek.

Sakana Patin taldeari Sakanan dauden beste irristaketa taldeak gehitu behar zaizkio: Olaztiko Sutegi, Altsasu, Urdiain, Etxarri

Aranatz eta abar. Talde hauetan hasten dira txikienak irristaketan trebatzen, eta lehiaketetan aritzea nahi badute, ondoren egiten dute salto Sakana Patin taldera. "Sakanan modu batera edo bestera irristaketan aritzen diren 250 neska-mutilo inguru daudela aurreikusten dugu" azaldu digu Oskar Zamarronek.

Olaztiko probak utzi zuena

Olaztin jokaturako Nafarroako Irristaketa Indoor Txapelketako III. Jardunaldiko emaitzei dagokienez, irristalari sakandarrak bikain aritu ziren. 30 sakandar inguru lehiatu ziren, gehienak Sakana Patin taldekoak eta baita Lagunak taldean dabiltzan Unai Villalobos, Ana Rita Correia eta Anne eta Iratxe Lapuente eta Amayan dabilen Unai Baztan.

Aurrebenjaminetan, emakumezkoetan Naia Olaiz Aldaz gailendu zen eta gizonezkoetan Asier Agirre Aldaz, eta benjaminen gizonezkoetan Eneko Pinto Vicente izan zen onena. Aipatzekoa da haurren, jubenen eta juniorren mailan jokatu ziren erreleboetako lasterketen ikusgarritasuna. Haurren mailan, Intza Unamunok, Mara Gomez Zabalak eta Maddi Goya Antonek osatutako Sakana Patin

taldea bosgarrena sailkatu zen 10 taldeen artean eta gizonezkoetan, Yera Goikoetxea Garziandiak, Iker Gomez Lopez de Goikoetxeak, Oier Ormazabal Ijurak eta Oinatz Zelaia Gorrotxategik osatutako Sakana Patin taldea meritu handiko laugarren postuan sailkatu zen.

Sakanan irristaketa pista beharrezkoa dela aldarrikatu zuten

Olaztiko larunbateko Indoor Txapelketako jardunaldian parte hartu zuten irristalari guztiek, 240 irristalari inguruk, talde argazkia atera zuten Sakana Patin taldearen aspaldiko eskaera bat bere egiteko: Sakanan irristaketarako araututako pista bat egitearen beharra. "Aspaldiko aldarrikapena da. Sakanan irristaketarako pista behar dugu, behar bezala entrenatu ahal izateko eta larunbatean Olaztin antolatutakoa bezalako irristaketa txapelketak edo hobeak hartzeko" aipatu zuen Zamarronek. Sakanako hainbat irristalarik Iruñeko beste klubetara jotzen dute irristaketan ongi entrenatu ahal izateko eta Sakanan pista balego hori ekingo zela uste dute Sakanako irristalariak.



Lasterketa bikainak ikusteko aukera egon zen larunbatean Olaztin. SAKANA PATIN

Lasterbidean, zabalik

ATLETISMOA Euskal errepresaliatuen eta euren senideen alde antolatzen da Lasterbidean lasterketa. Aurtun Arbizu eta Lakuntza artean jokatu da, maiatzaren 19an, "Leixterka denak itxa!" lelopean. Ondoren bazkaria izanen da, Lakuntzan. Izena ematea bihar, larunbatean zabalduko da, www.kirolprobak.com web gunean.



LASTERBIDEAN



Naiara Diez, Gernika Lointekoko taldekideekin, Erreginaren Koparako prest. GERNIKA LOINTEK

Naiara Diezen Gernika Erreginaren Kopan

SASKIBALOIA Gaurtik igandera bitartean Espainiako Erreginaren Kopa jokatu da Gasteizen. Naiara Diez altsasuarraren Gernika Lointek IDK Gipuzkoa izango du aurkari ostiralean, 19:30ean

Asteburuan saskibaloia protagonismoa izango du Gasteizen. Atzotik igandera bitartean Espainiako Erreginaren Kopa dute jokoan 8 taldek, tartean Naiara Diez altsasuarraren Gernika Lointek taldeak. Mendizorrotza pabilioiak hartu du Erreginaren Kopa eta Gasteiz saskibaloiz zaleen gunea izanen da.

Naiara Diez, gogotsu

Gernika Lointek taldeko kapitaina da Naiara Diez, eskolta postuan jokatzen duen altsasuarra. Denboraldi bikaina egiten ari dira, EuroCupeko 2. fasera edo playoffetarako sailkatu ziren eta huts egindako hiruko batengatik geratu ziren kanpo,

Galatasaray taldearen kontra. Egun, Emakumezkoen Ligan hirugarrenak dira eta orain Espainiako Erreginaren Kopa da jomugan dutena.

Erreginaren Kopako final laurdenak jokatu dira lehenik eta behin. Atzo, ostegunean, Spar CityLift Gironak Valencia Basket izan zuen arerio, 17:00etan (Teledeporte) eta Cadi La Seuren kontra aritu zen Gasteizko RPK Araski, 19:30ean (Twitter @BaloncestoESP). Guaixeko erredakzioa isterakoan ez genuen atzoko partidetak emaitzen berririk.

Gaur, ostiralean, 17:00etan, Perfumerias Avenidak Nissan CB Al-Qazeresen kontra jokatuko

du (Teledeporte), eta, 19:30ean Naiara Diezen Lointek Gernika sartuko da lehian, IDK Gipuzkoaren kontra (Twitter @BaloncestoESP). Beraz, bi talde euskaldunen arteko derbia izanen da jokoan egonen dena. Gernikako Naiara Diez kapitain altsasuarra azaldu duenez "final bat balitz bezala planteatuko dugu partida, irabaziz gero aurrera egiten duzulako eta galduz gero etxera zoazelako. Taldea da garrantzitsua eta taldea ongi badago, ni kontentu egongo naiz".

Finalerdiak larunbatean jokatuko dira, 13:00etan eta 17:00etan, eta final handia igandean, 13:00etan (Teledeporte).



Burunda Txirrindularitza taldeko juniorrak, aurkezpen ekitaldian. BURUNDA

Afizionatuei segiz, etzi hasiko dute denboraldia juniorrek

TXIRRINDULARITZA Igandean XLI. Circuito San Veremundo jokatu da Villatuertan, goizeko 11:00etan

Asteburuan hasi zen afizionatuen mailako denboraldia. XI. Zumaia Saria jokatu zen, Euskadiko Txirrindularitza Federazioak antolatzen duen Euskaldun Torneorako balia garria zen proba. Lasterketa hasi eta erdi aldera, eroriko handia izan zen, eta hainbat txirrindularik lurrean bukatu zuen. Horietako zortzi ospitalera eraman behar izan zituzten artatzerara. Lasterketa neutralizatu zuten anbulantziak etorri arte eta, ondoren, distantzia laburtzea erabaki zuen antolakuntzak. Proba esprintean erabaki zen eta Baqué taldeko Migel Angel Fernandez gailendu zen. Rural Kutxako Juan Esteban Guerrero laugarrena sartu zen.

Aurten afizionatuetara salto egin duen Ailetz Lasa ziordiarra (Goierriko TB-Laboral Kutxa) 29.a sailkatu zen, Rural Kutxarekin afizionatuetara salto egin

duen Josu Etxeberria iturmendiarrak 50.a, Goierriko TB-Laboral Kutxara joan den Eneko Aramendia iturmendiarrak 68.a, Telcom taldeko Alex Uncilla 148.a, Lizarteko Asier Ormazabal ziordiarra 152.a eta Telcom taldearekin afizionatuetan debutatu duen Iker Cerviño 153.a.

Igandean 10:30ean Ereñon jokatuko den lasterketarekin (105,4 km), afizionatuen mailako Lehendakari Txapelketa hasiko da, 23 urtez azpikoa.

Juniorrak lanera

Asteburu honetan juniorrak izango dira errepidera aterako direnak, 2019ko denboraldiari ekiteko. Igandean, Ondalan Txirrindularitza Taldeak antolatuta, XLI. Circuito San Veremundo lasterketa jokatu da Villatuertan. Goizeko 11:00etan abiatuko dira juniorrak, 74 km-ko proba osatzeko.

OSASUNA Desfibriladore birziklatze-ikastaroa Olaztin

Desfibriladorea erabiltzen ikasteko ikastaroa behin egitearekin ez da nahikoa, bi urtetik behin ikasitakoak birziklatu behar dira. Sakanako Mankomunitateak, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, desfibriladore birziklatze-ikastaroa antolatu du martxoaren 12an, asteartearrekin, 16:30etik 20:30era Olazti-ko Kultur Etxean.



Desfibriladorea.

Altsasuko CBASK saskibaloit taldea: irabazi eta galdu

SASKIBALOIA Iruñeko San Ignacio taldearen kontra galdu egin zuen baina San Ignacio Rioja mendean hartu zuen

Altsasuko CBASK saskibaloit taldeak ostiralean Iruñeko San Ignacio taldea hartu zuen Zelandi kiroldegian. Partida oso lehiatua izan zen eta bi taldeek lortu ahal izan zuten garaipena, baina azkenean, puntu bakar

batengatik, San Ignaciok 72 eta 73 irabazi zion CBASK taldeari. Baina hori ez zen izan CBASKek asteburuan jokatutako partida bakarra. Igandean 16. jardunaldian atzeratutako partida jokatuko zuten CBASKek eta Sanigna-

cio Riojak, Logroñon. CBASK-ek azken jardunaldietan galdu izanaren arantza ateratzeko aukera izan zuen eta, azkenean 66 eta 71 irabazi zuen Altsasuko taldeak, merezitako garaipena.

Autonomia Arteko 2. mailan Cenicero La Alcoholarak jarraitzen du lider (29 puntu), Iruñeko San Ignacio bigarrenarekin puntutara berdinduta. CBASK 8.a da (21 puntu). Larunbatean CBASKek etxean jokatuko du, sailkapenean azkena den Valle de Egües taldearen kontra.

"Liburu bat idazteko asko irakurri behar da"

MARI ROMERO IDAZLEA

'El pintor de sonrisas' liburua aurkeztu zuen idazle altsasuarrak. Altsasun egin zuen aurkezpena asteartean. Dagoeneko buruan istorio gehiago dituela esan du

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Extremaduran jaio zen Mari Romero idazlea, baina oso haurra zela Altsasura bizitzera etorri zen. Ondoren, Legazpira lekualdatu ziren. Baina Altsasuko ganbarako etxean bizitakoa oso gogoan izan zuen beti eta *La casa de la buhardilla* eleberrri autobiografikoan kontatu zuen. Orain, bigarren eleberria argitaratu du: *El pintor de sonrisas*. Autobiografiatik urrundu da, baina oroitzapenak oinarri hartu ditu Romerok gerra zibilaren garaiko eleberria idazteko. Asteartean etxean aurkeztu zuen liburua, Altsasuko Haritza tabernan. Gonbidapen guztiak agortu ziren.

Bigarren eleberria aurkeztu duzu. Nolako da?

Eleberrri honekin iraganera joan naiz. Hemen bizi ginenean nire aita oso goiz joaten zen lanera eta itzultzen zenean gu lotan geunden. Orduan, igandeak guretao igande magikoak ziren. Istorioak kontatzen hasten zen. Oso narratzaile ona da. Bere bizitzari buruzko istorioak kontatzen zizkigun eta horietako asko gerra zibilaren garaikoak eta gerraondokoak ziren. Haien artean mutil bati buruzko istorio bat zegoen Nire buruan habia egin zuen. Eleberria idatzi nuenean hasi zen niretzat idazteko beharra eta bat batean atera zen gazte hura.

Beraz, benetako istorio batetik abiatu zara.

Istoriotxo txiki horrekin hasi nintzen, gerra zibilean gertatutako istorioa, ni jaiotako herrian gertatutakoa, eta hori egia da. Horrekin hasi eta bat batean koadernoaren orrialdeak hasi ziren betetzen eta eleberrri bat sortu zen. Beraz, bakarrik istorio hori da erreala, beste guztia fikzioa da.

Dokumentazio lana egin duzu?

Gauza batzuetarako bai behar izan dut historikoak direlako



Mari Romero idazlea.

eta dokumentatu behar izan dut. Baina gutxi, ia gehiena nik asmatutakoa delako.

Zergatik 'Irribarreen margolaria'?

Nobela honekin itxaropena transmititu nahi dut. Protagonista gazte bat da, oso sentibera, margolaria, eta bere bizitzan atsekabe asko ditu. Bat batean gerra zibilak harrapatzen du eta bere bizitzari buelta handi bat ematen dio. Nahiz eta gauza txarrak gertatu, ateratzea posiblea dela transmititu nahi dut. Hegoaldeko herri batean kokatzen da istorioa, baina protagonista iparraldera doa. Bertako jendeak harrera oso ona egiten dio. Eta horrekin adierazi nahi dut askoz garrantzitsuagoak direla pertsonak mugak baino.

Zertan inspiratu zara eleberria osatzeko?

Protagonista pintorea da eta agian hori txikitako oroitzapenetatik dator. Legazpin bizi ginenean neguko arratsaldetan bi anaiek oleoekin margotzen zuten. Usainek niretzako balio handia dute eta usain hori etorri zait.

Gertaera hori kontatzeko beharra zegoela uste zenuen?

Izan daiteke, bai. Aitak eta osabek hemen bizi ginenean asko

tan hitz egiten zuten horri buruz. Garai oso gogorra izan zen. Nire aitak 92 urte ditu eta oraindik gogoratzen ditu garai horretako kontuak. Oraingo egoera politikoa ikusita, badirudi batzuei ahaztu zaiela zer gertatu zen, baina ez da ahaztu behar. Memoria historikoa da.

Istorioa atera zitzaizula esan duzu. Horrela sortzen duzu?

Bai. Idazten hasten naiz eta bat batean kapitulu bat idatzi dut eta horren atzetik beste bat. Kapituluak bata bestearen atzetik idazten joaten naiz. Gero

zailena da kapitulu horiek ondo lotzea. Liburu batean inportantea irakurleak harrapatzea da eta horretarako kapituluak ongi lotzea. Liburua jaso nuenean gau horretan irakurri nuen berriro eta harritu nintzen bururaten zaizkidan gauzekin.

Lehenengo eleberria 2015ean argitaratu zenuen. Denbora pasa da. Nola izan da bigarren liburua haur argitaratzeko prozesua?

Idatzita aspaldidanik dago eta gehiago daukat idatzita. Jendeak animatu behar nintzela esaten zidan eta autoediziorako aukerak daude. Baina azkenean Tandaia argitaletxearekin harremanetan jarri nintzen berriz ere eta kopia bat bidali nien. Irakurketa departamentuak positibotzat jo zuen eta argitaratzeko moduan zegoela esan zidaten. Crowdfunding bidez egin dugu. Hasieran zalantza nituen, baina oso ondo joan zen.

Nolako da zure estiloa?

Errealismo magikoa dela uste dut. Deskribapenak asko gustatzen zaizkit; paisaiak eta etxeak. Etxeek badute pisu bat. *La casa de la buhardilla* izenburuan ikusi daiteke, dena etxe baten inguruan gertatzen da eta bigarren honetan ere garrantzia dauka. Eta familiak eta sentimenduak deskribatzen ditut ere.

Zer da zuretzako literatura?

Asko gustatzen zaidan zerbait da. Betidanik gustatu izan zait bai idaztea bai irakurtzea. Irakaslea izan naiz eta hurrek nire liburua ikusi zutenean esan zidaten: baina nola da posible hainbeste idaztea? Zer egin behar da? Eta nik esaten nien literatura egiteko asko irakurri behar dela. Ez da momentu onena teknologia berriengatik eta dena bisualagoa delako. Ez nago kontrari, teknologiaren aldekoa

naiz, izan ere, ongi erabiltzen bada emaitza positiboa da. Baina pelikula bat ikusten duzunean dena egina ematen zaizu. Aldiz, liburu bat irekitzen duzunean ez dago ezer, zuk imajinatu behar duzu. Liburu batean bizi diren gauza guztiak zuk imajinatu behar dituzu. Niretzat hori da literatura. Horregatik esaten nien ikasleei noizean behin telebista itzali behar zutela eta liburu bat piztu.

Zein da gehien gustatzen zaizun generoa?

Prosa poetikoa asko gustatzen zait. Agian da nire aitak poesia egiten duelako. Nik ere poema batzuk idatzi ditut, baita ipuinak ere. Baina gehiena nobela idazten dut.

Etorkizunerako?

Proiektu asko ditut buruan. Beste eleberrri bat dut bukatuta gaztelaniaz *La raya del pantalón* eta hor genero indarkeriaren gaia jorratzen dut. *Por que no nos dejais entrar* ere idatzi dut, errefuxiatuei eta inmigratioari buruz da. Gai horrek bihotzean zuzenean jo dit. Eta euskaraz ere bi proiektu ditut. *Andereñoaren bazterreko bihotzean* da bat. Justo orain erretiratu naiz eta urte guzti horietan bihotza ukitu didaten uneak azaleratu ditut. Kapitulu batean irakasle izatearen istorioa kontatzen dut eta hurrengoan ikasle baten istorioa. Ipuin bat ere egin dut. Hurrek egindako marrazkiekin bi errefuxiatuen ingurukoa. Ipuin hori ikastetxeetan lantzen ari dira.

"LIBURU BATEAN BIZI DIREN GAUZAK IRAKURLEAREN IRUDIMENEAN SORTZEN DIRA"

www.bertsozale.eus

Sarrerak www.bertsoarraker.eus atarian eta Xapatero tabernan salgai

ETXARRI ARANATZ

Martxoak 9. 17:30ean, Kultur Etxean

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2019

Julio Soto Ezkurdia, Xabier Terrerros Gartzia, Julen Zelabietia Iriarte
Diego Riaño Barroso, Iker Gorosterrazu Elizagoien eta Iban Garro Alzuri
Gai-jartzailea: Alaitz Rekondo Ferrero

Antolatzailea

ATARRABIA
Martxoak 3. 17:30ean, Kultur Etxean

LESAKA
Martxoak 10. 17:30ean, Kultur Etxean

Laguntzailea

GUAIXE
Fundazioa

Bertsolari Txapelketako hurrengo fasea martxan

Igandean, martxoaren 3an, izanen da lehenengo finalaurrekoa, Atarrabiako kultur etxean, 17:30ean. Saats Karasatorre eta Eneko Lazkoz bertsolari etxarriarrak ariko dira. Datorren asteko larunbatean Etxarri Aranatzan izanen da saioa

ETXARRI ARANATZ

Final-laurdenetatik sailkatutako 18 bertsolari ariko dira datozen bi asteburuetan egingen diren finalaurrekoetan. Guztira, hiru finalaurreko jokatuko dira eta zortzi bertsolari pasako dira finalera: saio bakoitzeko irabazlea eta sailkapenaren arabera hurrengo bostak. Saats Karasatorre eta Eneko Lazkoz etxarriarrak etzi, igandean, jokatu dute finalaurrekoa, Atarrabian. Martxoaren 10ean, larunbatean, Etxarri Aranatzan izanen da saioa.

Saats Karasatorre Tuterako irabazlea izan zen 253,5 puntuekin. Hortaz, Atarrabiarako txartel zuzena lortu zuen. Eneko Lazkoz Lizarrako final-laurdenean bigarren sailkatu zen, eta sailkapen orokorrean ere saio bakoitzeko irabazlearen ondorengo bigarren postua lortu zuen. Lehiaketaren oinarriek, bi etxarriarrak lehenengo finalaurrekoan aritzea suertatu dute.

Atarrabian Sarai Robles, Aimar Karrika, Xabi Maia eta Joana Ziganda bertsolariekin ariko dira etxarriarrak. Gainera, Maider Ansa etxarriarra ariko da gai-jartzaile lanetan, eta Joseba Beltza etxarriarra bera ere epaileetako bat izanen da Nerea Bruñorekin, Mikel



Atarrabiako finalaurrekoan ariko diren bertsolariak. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Beaumontekin eta Joan Abriekin batera. Etxean jokatzeko bezala izanen da. Finalaurrekoa Atarrabiako kultur etxean izanen da, 17:30ean, eta Nafarroako Bertsozale Elkarteak Atarrabiako udalaren laguntzarekin antolatu du saioa.

Finalaurrekoetako irabazleek zuzenean eskuratuko dute finalean jokatzeko aukera. Gainerakoak puntuazioaren arabera sailkatuko dira, beraz, finalaurreko fasea amaitu arte ezingo dute jakin finalean ariko diren jakiteko. Hemezortzi bertsolari

pasa dira finalaurrekoetako fasea eta zortzi baino ez dira finalean izanen.

Hurrengo saio datorren asteko larunbatean, martxoaren 9an, Etxarri Aranatzan izanen da finalaurrekoa eta martxoaren 10ean Lesakan izanen da azken finalaurrekoa. Finala martxoaren 23an izanen da, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian.

Saioetarako sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian lor daitezke. Gainera, igandeko saiorakoak Atarrabiako Karrikaluzel Elkartearen eskura daitezke.



BAZTERRETIK

IRATI PELLEJERO

Adinarekin azala aldatu zait eta ez dakit hau nola margotu

Urteak pasatzen diren heinean azala aldatzen zaigu, gazte garenen poroak zabaltzen zaizkigu, baita maiz pikor desatseginak atera ere. Orain, aldiz, azala fintzen da eta eguzkitako mantxak zein orbanak ateratzen dira. Azken hori polita da eta gure gorputzean edukitzea poztasunaren arrazoi bat izan daiteke.

Zimurrak estali: zimurrak disimulatu nahi baditugu hobereena argi askoko makillajeak erabiltzea da. Gure aurpegia ongi hidratatzea garrantzitsua da, eta makillatu aurretik azala prestatu behar dugu. Era berean, hautsezko makillajeak utzi eta horiek kremazkoetara aldatu behar dira.

Orbanak: eguzkiaren eraginez sortutako orbanak estaltzea ere oso zaila da, baina ez da zuzentzaile argi bat erabili behar, baizik eta gure azalaren kolorekoa eta hidratatzaile krematsua eman. Kantitate txikiak eman eta ez du axola noiz, bitan ere eman daiteke.

Ezpainetan zimurrak: "kremazko argiztagarria" erabili behar dugu ezpainenetan, horrela bolumen gehiago ikusiko delako, hutsuneak betez.

Ile zuria: oso polita da eta orain modan dago. Erosoa ere bada, baina aurpegia zurbiltzen du eta kolorea baduzu grisaxka jartzen du. Hemendik aurrera kremazko bronzeadorea izanen da zure lagunik hoberena.

Bekainak: oso - oso garrantzitsua da makillaje on batean bekainak margotzea, gure begirada aldatzen duelako.

Begiak gaztetu: behar dugun guztia kolorea da, beraz, hau ere begietan aplikatu. Ahaztu beltza eta arkatx marroi zein borgoinak erabili. Begiaren goiko zatia margotu behar dugu eta ez behekoa. Betile motzak edo eskasak baditugu betazalaren barneko aldea marra beltz batez margotu behar dugu. Koloreari dagokionez, lur koloreak, koralak... erabili ditzakegu, kolore suabeak.

EZ AHAZTU BETILEAK ORRAZTU BEHAR DIRELA.

Ezpain lodiak: adinarekin ezpainak findu egiten dira, baina makillajeak hori erraz konpon dezake. Silikona duen "primer" bat erabili behar dugu zimurrak betetzeko. Azkenik, ezpainak perfilatu behar ditugu ezpainenetakoaren kolore berdinarekin.

Beste toki batean ez dute sinistuko kontatzen ari direna

'Una extraña aventura' antzezlanaren izanen da gaur, ostirala, Etxarriko kultur etxean, 22:00etan

ETXARRI ARANATZ

Gertaera bitxi batek sortzen du guztia. Hainbat emakume bildu dira eta gertaera arraro horren inguruan hizketan hasten dira. Torturatuak izan dira guztiak. Eta gertaera horrek burumarkutu beharrean emakumeak indartu ditu. *Una extraña aventura* Eva Forest-en lanean oinarritutako antzezlanaren egonena da gaur, 22:00etan, kultur etxean. Amuart antzerki konpainiak eskainiko du antzezlanaren.

Lau emakume agertzen dira agertokian. Haien artean hitz

egiten dute. Badakite han kontatzen dutena beste toki batean ezin dutela aipatu. Ez sinisteko beldur dira. Izan ere, hainbatek tortura sinistu ezineko gauza horietako bat da. Hamar egunez jasan dute poliziaren tortura eta haien existentziako aspektuak azaleratu dituzte. Hori da Eva Forest idazlearen *Una extraña aventura* lanaren kontatzen duena, Amuart antzerki taldearen antzezlanaren bihurtu duena.

Blanca Ruiz, June San Millan, Violeta Silva eta Maria Zapata dira aktoreak.

Dantzan hezitzen

'Growing young' ikuskizuna egin zuten larunbatean Altsasu BHI-ko 2. eta 3. mailako eta Andra Mari ikastolako 6. mailako ikasleek Dantzaz konpainiako dantzariekin batera. Ikastetxeetan egindako erresidentziaren emaitza erakutsi zuten dantza emanaldian. Institutuko ikasleek lau koreografia egin zituzten, ikastolakoek bi eta profesionalek beste bi.



IOSUNE RUIZ

Jendailaren opera Lizarratik Altsasura

'La opera de los suburbios' antzezlanaren izenburua izan da bihar, 19:30ean, lortian

ALTSASU

Die Dreigroschenoper da lanaren izenburu originala. Zuzeneko itzulpenik ezin da egin, izan ere, Groschen balio gutxiko txanponak adierazteko hitz ba da, xoxak, nolabait esateko. Beraz, antzezlan honen adaptazioek hainbat izenburu izan ditu: hiru penikeen opera, bi zentaboen opera, hiru pezeten opera... Kil-karrak antzerki konpainiak suburbioetako opera deitzea erabaki du. Izan ere, antzezlanaren viktoriar Londresean kokatzen da eta Macki antiheroia bizi bizitzan oinarritzen da. Bihar antzeztuko dute Iortia kultur gunean, 19:30ean.

Die Dreigroschenoper lana antzezlan epikoa dela diote Kil-karrak konpainiatik. Jabetzaren eta antzerkiaren beraren ohiko kontzeptuak hankaz gora jartzen ditu eta galdera bat planteatzen du: zein da kriminal handiagoa, banketxeak lapurtzen dituen edo sortzen dituen?

Tarima Beltza taldeak urtean zehar egiten duen truke programari esker etorriko da Kil-karrak antzerki konpainia Lizarratik. Taldeak hamarkadak daramatza agertokiaren gainean. Are gehiago, Nafarroako antzerki talde zaharrenetarikoa da.

Rock doinuen bidez, atzamarkada egin dute

'Segi aurrera' diskoa kaleratu du Atzapar Rock taldeak. Gainera, Akelarre Kultur Elkarteko Musika Taldeen lehiaketan bigarren eta publikoaren saria jaso zuten. Izan ere, kontzertuetan sentitzen dira erosoan taldeko kideak

ARBIZU-BAKAIKU-ALTSASU-OLAZTI

Atzapar Rock izena are eta eza-gunagoa egiten ari da. Taldeak oso gazteak dira, 15 urte dituzte, baina bi urte inguru daramate agertokiaren gainean. Sarabe Bigiristain abeslaria da, Ekhi Erauskin gitarra jolea, Aitzol Gartzarain tronpeta jolea, abeslaria eta gitarra jolea, Ander Goikoetxea bateria-jolea, Luken Goikoetxea baxu jolea eta koroak eta Asies Solis gitarra jolea. Seikoteak Atzapar Rock taldea osatzen du, eta *Segi aurrera* diskoa kaleratu dute. Benetako asmo adierazpena.

"Munduan gertatzen diren gauzen inguruan" hitz egiten dute Atzapar Rock taldeko abes-tiek. Segi aurrera diskoan hamahiru bildu dituzte, taldekideek sortuak. "Erdi bertsio" bat grabatu dute tartean. "Normalean ideia batetik sortzen ditugu. Aitzolek ekartzen ohi ditu ideiak eta letra batzuk, eta gero denok batera osatzen ditugu eta musika jartzen diegu". Rock-a jotzen dute: "rock biguna, ez oso potentea, baina biguna".

Lehenengo diskoa

Segi aurrera diskoa kaleratu berri du Atzapar Rock taldeak. Diskoa grabatzea esperientzia berria zen Atzapar Rock talde-



Atzapar Rock taldea. UTZITAKOIA

ko gazteendako. Altsasun grabatu zuten duela urte bat inguru, Aretaren estudioan. Egindako lanarekin "oso pozik" daude, eta "lan handia" egin duela esan dute, baina "zuzenekoan azkarrago joaten gara eta animatuagoak egoten gara". Hortaz, diskoa "mantsoa" ikusten dute. "Nolakoak garen ikusteko kontzertuetara etorri". Izan ere, taldekideek azaldu duten bezala "diskoa grabatzen hasi ginenetik orain arte gauzak aldatu dira". Beraz, lehen egiten zutena eta orain egiten dutena

ezberdina da: "maila ezberdina da".

Diskoa dagoeneko salgai dago, hala ere, aurkezpen ofiziala martxoan egingo dute, Lakuntzan. Bertan emanaldia ere egingo dute ere. Diskoak sinatzen esperientzia dute jada, izan ere, aurreko asteburuan egindako Stock Azokan diskoak grabatzen aritu ziren.

Agertokietan ezagunak

Lehenengo diskoa orain iritsi da, baina agertokiaren gainean bi urte inguru daramate. "Hamar

eta hamabost" kontzertuen artean eman dituzte eta zuzenekoetan sentitzen dira erosoan: "kontzertuak ematea motibatzen gaituena da". Gainera, jenderik gabe ez zirela ezer izango onartu dute: "musikari batzuk agertokiaren gainean izango ginateteke, besterik ez". Publikoak bizia ematen du.

Bi sari

Zuzenekoak nahiago dituzte, eta zuzenekoek erantzuten dute. Izan ere, Txantreako Akelarre Kultur Elkarteko talde lehiaketan bigarren saria eta publikoaren saria jaso zuten Atzapar Rock taldeak. Hamabi talde hasi ziren, zortzi finalaurrekora pasa ziren eta finalera hiru iritsi ziren, tartean, Sakanakoak. Euskal Herriko txoko ezberdinetik parte hartu zuten lehiaketan, baita Madriletik ere.

Finalean jotzea "zoragarria" izan zela diote taldekideek. Hala ere, "oso urduri" zeudela aitortu dute. Gainera, "espero ez zuten gauza bat" gertatu zela azaldu dute. "Beti jotzen dugu azkeneko kanta bat eta oraingoan bukatu genuen bat- batean, kolpean. Orduan kontzertua bukatzeko abesti hori faltatu zitzaigun".

Gazteek ez zuten espero bigarren saria irabaztea: "nahiko flipatuta geunden". Talde oso onak zeudela adierazi dute. Gainera, lehiaketak beste talde batzuk ezagutzeko aukera eman die. "Oso jende jatorra" zen.

Neguan kontzertuak emateko aukera gutxi dutela azaldu dute, beraz, lehiaketetan parte hartzeko baliatu dute. Besteak beste, EITB-ko Maketa lehiaketan parte hartuko dute. Udan kontzertuak ematea espero dute, haien gustuko habitata.

Eguzkiaren marraskia euria uxatzeko

Nafarroako Arte Eszenikoen Zirkuitua Sakanara iritsiko da etzi, igandean, Euria Markeliñe konpainiaren eskutik. Irurtzongo kultur etxean izanen da emanaldia, 18:00etan. Arte Eszenikoen Zirkuituaren helburuetako bat gutxieneko arte eszenikoak bul-tzatzea da; hortaz, aurten dantzari garrantzi handiagoa eman nahi diote. Euria dantza ikus-

kizun bat da, baina antzerkia ere bada.

Euria itxaropen oihu bat da. Maitatutako pertsona bat galtzean eta dena aldatu dela onartu behar denean geratzen denari buruz hitz egiten du, ur tantak daude, eta tanta horietatik babesteko bi aterkirekin bizi den pertsonaia da nagusi. Leho batean eguzkia marraztuta ere agertzen da emanaldian. Izan ere, gizakiak altxatzeko eta aurrera egiteko gaitasunaren metaforaz hitz egiten baitu ikuskizunak.

kattuka
hur eskola
Arbizu eta Lakuntzako udalak
INFO+
948 567 009
www.kattuka.com
info@kattuka.com

**Aurrematrikula
Martxoak 1-15
Matrikula
Maiatzak 20-24**

7:30-16:30

Haur bakoitzaren errotzioa eta banakotasuna aintzat hartzen dituen proiektu berritzailea

Haurren garapeneraren araberako espazioak eta materialak

Familien beharren araberako sarrera eta irteera ordutegi libreak

2017, 2018 eta 2019an jaiotako haurrentzako hur eskola publikoa

11 GALDERA

"Larunbata eta astearteak indartu ditugu"

Iyote berrituak ospatuko dituzte datozen egunetan etxarriarrek eta, besteak beste, Kixkimau Pintto pertsonaia berreskuratuko dute. Amaia Ijurra kultur teknikariak, Eneka Maiz alkateak eta Lur Larraza kultur zinegotziak aldaketaren berri eman dute

E. Carreño - E. Ruiz. ETXARRI ARANATZ

1 Zer dela eta erabaki duzue iyoteak berritzea?

Eneka. Aspaldiko asmoa bazen Etxarriko Iyoteak berritzea. Batetik, iyote indartsuak larunbatean egiteko gogoak zeuden. Gaur egun arte ez daukaguna. Eta, bestetik, astearte iyotea ihote rural bezala indartzeko asmoa ere bazen. Orduan, kintoak eta gazte asanbladakoak Iyote Batzordera etorri ziren eta asmo horiek aurten gauzatzeko borondatea agertu zuten.

2 Ez zen nahikoa ospatzen zenuen astearte ihote horrekin?

Lur. Iyote batzordea deitu genuen eta kintoak etorri ziren eta gazte asanbladako kideak ere hurbildu ziren. Haien proposamen zuzena izan zen: larunbata gehitzea eta astearteari buelta bat eman. Ikusten zen astez jende asko lanean zegoela eta triste gelditzen ari zela eguna.

3 Beraz, zeintzuk elkartu zarete?

Amaia. Bildu gara herritarrak, kintoak, gazte asanbladakoak eta gero udaletik Lur eta biok. Egia esan lan talde polit bat hasi zen lanean. Lehenda-

biziko urtea izanda ikusiko dugu zer fruitu dauzkan.

4 Nola ospatuko dituzue orain ihoteak?

Amaia. Gizakunde, Andrekunde eta Garikunde ostegunak mantendu dira. Zalduniyote igandean ospatzen genuen eta haurren iyotea zen nahiko eskas eta pobre gelditzen ari zen azkeneko urte hauetan, orduan, egunez aldatu dugu; larunbatean ospatuko dugu, bihar, eta iyote urbanoa izango da. Astearteiyote ihote rurala izango da: txatarrez eta trapu zaharrez jantzeko eguna.

5 Beraz, jendeak ostegunetan parte hartzen du.

Eneka. Ostegun horietan egiten zenaz kintoek hartzen zuten ardura edo lana. Txatarraz jantzen ziren eta herrian barna zirikari joaten ziren. Txatarren izaera hori delako. Urte hauetan asko indartu dira ostegun horiek. Jende asko biltzen da. Balorazioa oso positiboa da.

6 Bihar ospatuko duzue Zalduniyote. Nola?

Lur. Esperimentu moduko zerbait izan da. Lehendabiziko

urtea da, zerbait berria. Eguerdian poteoa egongo da eta, gero, arratsaldean, mozzorro txapelketa. Ahalik eta jende gehien animatzea espero dugu. Gauean kintoen eskutik musika egongo da.

7 Lehenengo aldiz mozzorro txapelketa egongo da.

Amaia. Hiru kategoria egongo dira: banakako haurrak, banakako gazte-helduak eta taldeka aurkezten direnak. Gazte asanblada antolatzen ari da. Musikarekin egongo da eta aurkezle xebreak egongo dira; zerbait aterako da.

8 Eta Astearteiyote berria nolako izango da?

Amaia. Antzeko egitaraua izango da. Goizean goiz hasiko dira kintoak kalez kale kalejiran eta haurrendako animazioa eta dantzaldia egongo da. Arratsaldean, txokolatada eta musika egongo da eta, ondoren, Kixkimau Pinttoren segizioa aterako da. Gero erre egongo dugu.

9 Berezitasun handiena, beraz, Kixkimau Pintto izango da.

Eneka. Ihote rural bezala indartzea erabaki dugu. Batetik, txa-



Eneka Maiz, Lur Larraza eta Amaia Ijurra.

tarrei eta trapu zaharrei espazio bat ematen. Eta, bestetik, kintoen presentzia handitzeko. Bilatu den formula Kixkimau Pintto pertsonaia berreskuratzea izan da.

10 Nor da Kixkimau Pintto ?

Eneka. Zakuz jantzitako pertsona bat zen, lastoz beteta, eta eskuan makil bat zeukana. Erraldoietarako irudikatu genuen ttuttur batekin kintoek eramaten duten bezala. Pertsona bihurri xamarra eta zirikatzailea zen. Gainera, aurpegia ikatzez

zikindua zeukan eta horregatik erretzearen kontua. Kintoek irudikatuko dute pertsonaia eta segizioa egongo da.

11 Arrakastasuak izango dira.

Amaia. Gazte asanbladan lan ikaragarria egiten ari dira ere. Kixkimau Pinttori garrantzia ematen ari dira eta dena prestatzen dabilta. Lehenengo urtea denez eskolarekin eta ikastolarekin lana egin dugu eta haurrei azaldu diegu. Ea erantzuna zein den.

BAZKIDE SARITUAK

- David Oroz Alonso (Urdiain)
- Felix Alzelai Iriarte (Etxarri Aranatz)
- Oihana Andueza Imirizaldu (Lakuntza)
- Erkuden San Roman Mazkieran (Altsasu)

MARTXOKO SARIAK:

1. SARIA:
 EUREKA ZIENTZIA MUSEOA: 2 SARRERA
 EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
 ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
 EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BAT

2., 3. ETA 4. SARIA:
 ARTAZAKO KAMPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
 EREIN: ARGITALETXEAREN LIBURU BANA

eureka!
 zientzia museoa
 kutxa FUNDAZIOA

Ekain berri

erein
 argitaletxea

CAMPING
 ARTAZA

lacturale

gaztezulo